


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Soziologiako Gradua

2020/2021 ikasturtea

Hazien mundura lehen hurbilpen bat

Botere-harremanak, biolentziak, erresistentziak eta alternatibak

Naia Mondragon Arrese

2021/09/09

Tutorea: Ignacio Mendiola Gonzalo

Laburpena

Aldaketa klimatikoa geroz eta agerikoagoa den honetan, nekazaritzaren esparruan are ikusgarriagoak bihurtu dira honakoaren sintomak. Ez da harritzekoa beraz, honen aurrean sektore ezberdinetako aktore ugari ageri duten larritasuna, izan antolakunde sozialetakoak, esparru politiko eta instituzionaletakoak edo akademiatik jarduten dutenak. Sintoma horien artean nagusienetakoa biodibertsitatearen galera litzateke; eta, beraz, testuinguru honetan, haziak biodibertsitate hori bermatzeko elementu garrantzitsu bezala agertu dira.

Hala ere, aldaketa klimatikoaren sintomak zeintzuk diren identifikatzea ez litzateke honako lanaren helburua; baizik eta, aldaketa horietan parte hartu duten prozesu sozial eta politiko nagusiak zeintzuk diren aztertzea. Hots, hazien garrantzia ikusirik, horien ekoizpenaren inguruan harreman sozialak eta boterea nola antolatzen diren dela ikertu nahi dena, alegia. Horretarako, Gipuzkoako testuinguruan, hazien harira sortzen diren diskurtsoak izango dira lan honen aztergaia. Modu horretan, hazien munduaren inguruan egituratzen diren botere harremanak eta biolentziak ezagutzea espero da, baita horien aurrean egiten diren erresistentziak zeintzuk diren ere ezagutzea eta alternatibarik baldin badago horietan sakontzea.

Hitz gakoak: hazia, biodibertsitatea, autonomia, ezagutza, harremanak, zaintza.

Resumen

En un contexto en el que el cambio climático cada vez es más evidente, sus síntomas son especialmente evidentes en el ámbito de la agricultura. Por lo tanto no es de extrañar que frente a esta situación, actores diversos de diferentes sectores hayan mostrado su preocupación en torno al tema, ya sean organizaciones sociales, parte del sector político e institucional o quienes ejercen desde la academia. Uno de los mayores síntomas sería la pérdida de biodiversidad; y, es en este contexto que emergen las semillas como elementos importantes para garantizar dicha biodiversidad.

Pero, aún y todo, el objetivo de este trabajo no es identificar los síntomas principales del cambio climático; sino, más bien, analizar cuales han sido los principales procesos sociales y políticos que han participado en esos cambios. Es decir, consciente

de la importancia de las semillas, lo que se quiere analizar sería cómo se organizan las relaciones sociales y el poder en torno a la producción de semillas. Para ello, en el contexto de Gipuzkoa, el objeto de estudio serán los discursos que giran en torno a las semillas. De esta manera, se espera poder conocer cómo se estructuran las relaciones de poder y la violencia que giran en torno al mundo de las semillas; así como, también se espera poder conocer las resistencias que se practican, tanto como las alternativas que se generan.

Palabras clave: semillas, biodiversidad, autonomía, conocimiento, relaciones, cuidado.

Abstract

The symptoms of climate changing have become even more visible in the sphere of agriculture. It is not surprising, then, that many actors from different sectors, who participate in social organizations, in political and institutional areas, or in the academia, have been alarmed. One of the main symptoms would be the loss of biodiversity; therefore, in this context, seeds have emerged as an important element in ensuring biodiversity.

However, the purpose of the work is not to identify the symptoms of climate changing, but to examine the main social and political processes involved in these changes. That is to say, the importance of seeds, which is to inquire how social relations and power are organized around their production. So, discourses which turn around the seeds, in the context of Gipuzkoa, are going to be object to study in this work. In this way, is expected to know the power relations and violence which are formed around the world of seeds, and also to know the resistance which is made to them, as if there is any alternative to them.

Key words: seeds, biodiversity, autonomy, knowledge, relationships, care.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	5-6
2. Marko Teorikoa.....	7-21
2.1. Ekologia politikoa.....	7-12
2.2. <i>Ekologia-mundu</i> ikuspegia, <i>oikeios</i> -a eta <i>Kapitalozeno</i> -a.....	12-13
2.3. Ekofeminismoa.....	14-18
2.5. Sareak, aktoreak, boterea eta biolentzia.....	18-21
3. Testuingurua.....	21-25
4. Helburuak.....	26
5. Planteamendu metodologikoa eta diseinu teknikoa.....	26-30
5.1. Metodoaren aukeraketa eta justifikazioa.....	26-28
5.2. Ikerketa-teknikaren aukeraketa eta justifikazioa.....	28-29
5.3. Ikerketaren diseinu teknikoa.....	29-30
6. Analisia.....	31-42
6.1. Botere harremanak eta biolentziak.....	31-38
6.1.1. Biodibertsitatearen inguruan.....	31-33
6.1.2. Hazi barietateen inguruan.....	33-38
6.2. Erresistentziak edota alternatibak.....	38-42
7. Ondorioak.....	43-44
8. Bibliografia.....	45-47

1. Sarrera

Haziak, elikadura segurtasuna bermatzeko ezinbesteko elementua dira, eta aldi berean, askotariko kultur eta ezagutzen gordailu. Gaur egun ordea, geroz eta agerikoagoa den larrialdi klimatikoaren ondorioak nekazaritzaren sektorean bereziki nabariak dira. Horien artean, agian ezagunena, biodibertsitatearen galera bizkorra litzateke. Egoera honen aurrean berriz, nekazaritza eredu industrialak, teknologiaren bidezko konponbideak sustatzen jarraitzen baldin baditu ere, honako ereduaren epe luzerako iraunkortasuna geroz eta zalantzarriagoa bihurtzen ari da. Izan ere, nekazaritzaren mekanizazioan, monolaborantzaren garapenean eta ongarrri, pestizida, zein herbiziden hedapenean oinarritzen den honako ereduak aipatutako biodibertsitatearen galeran eragin nabarmena baitauka.

Ildo horretatik, haziak, biodibertsitatea bermatzeko elementu garrantzitsu bihurtu dira, horien aniztasunak biodibertsitatea mantentzen laguntzen baitu. Halaber, haziak, nekazarien autonomia bermatzeko tresna ere bihurtu dira. Zeren, gaur egun, hazien ekoizpen ereduaren artean, nekazaritza eredu industrialak oinarri duena baita nagusi. Eta nagusi bakarrik ez; baizik eta, hazien merkatu globalaren %60a sei enpresen esku dagoela (Grupo ETC, 2017), hain justu. Beraz, nekazariarentzako, hazien kontrola edukitzea merkatuarekiko menpekotasun harreman hori ekidin edo saihesteko ezinbestekoa bihurtu da.

Hori dela eta, lan honetan, hazien ekoizpen ereduaren inguruan sortzen diren botere harremanak eta biolentziak aztertu nahi dira, baita horiei egiten zaizkien erresistentzia ezberdinak eta haien aurrean sortzen diren alternatibak ere. Horretarako, lan honen ikergai bezala, hazien inguruan sortzen diren diskurtsoak definitu dira; eta, zehazki, lanean zehar, Gipuzkoako kasuan agertzen diren diskurtsoetatik arituko da gehienbat, jasotako esperientzia gehienak bertan kokatzen diren heinean behintzat.

Bestalde, honako gaiaren interes analitikoaren inguruan hainbat kontu argitu nahiko nituzke, gaiaren aukeraketan zerikusi nabarmena eduki dutenak. Hau da, gizakion gure arteko harremanak ulertzeko garatutako ikuspegiak barneratzen joan baldin banaiz ere —eta oraindik bide horretan egiteko asko, edo gehiegi, baldin badaukat ere— ez-gizakiak diren horiekin mantentzen ditugun harremanei ez baitiet

jaramon handirik egin. Zentzu horretan, gizakion eta ez-gizakien arteko harremanak aztertzeak eskaintzen dituen aukerei begira aukeratu zen honako gaia, aurreikusiz eragingo zizkidan buruhausteak, suposatuko zizkidan eginak, eta baita ezinak ere.

Honako lana beraz, erronka bat ere izan da maila pertsonalean. Baina, aldi berean, gizarte-zientzietan, gizarte-harremanak aztertzeko dagoen joera orokorretik irteteko apustu bat ere izan da. Kontuan edukiz, esandakoarekin ez dudala gizarte-harremanek garrantzia ez dutenik edo bestelakoek baino garrantzia gutxiago dutenik aditzera eman nahi; baizik eta, bestelako harremanak aztertzeak eskaini dezakeen potentzialtasuna dela azpimarratu nahi dudana, besterik eta gutxiagorik gabe.

Azkenik, lana hainbat atal ezberdinetan banatuta dagoela esatea besterik ez. Lehenengoa, marko teorikoari dagokio; bertan, hazien kasuarekin harremanak ezartzen hasteko ahalegin batean, gaia aztertzeko erabiliko diren ikuspegi teoriko eta kontzeptual ezberdinak azaldu dira. Ostean, hazien kasua kokatzen lagungarria izan daitekeen testuinguruaren atala aurkituko litzateke. Jarraian berriz, planteamendu metodologikoaren eta diseinu teknikoaren inguruko atala dator; non, ikerketa honen oinarriak izan direnak biltzen diren. Eta, amaitzen joate aldera, ondoren, egindako lanaren analisisa; eta, azken batean, lanaren ondorio nagusien atal biak aurkitzen dira.

2. Marko Teorikoa

2.1. Ekologia politikoa

Ekologia politikoa barnebiltzen duen postulatu teoriko, zein metodologiko sorta zabala dela eta, tresna teoriko analitiko aproposa bilakatu da *Natura/Gizartea* dikotomiak sortzen dituen arazoak hobeto ulertzeko. Zeren, ekologia politikoa, arreta gehiago ipintzen dio ingurumen-arazoen prozesuak eta arrazoiak ulertzeari horien sintomak identifikatzeari baino; izan ere, ingurumen aldaketaren arrazoiaren artean prozesu sozial eta politikoen eragin nabarmena dutela kontsideratzen baitu, baita edozein ingurumen arazo aztertzerako garaian, honakoa, ekoizpenaren harreman sozialekin eta boterearen banaketarekin erlazionatu behar dela ere.

Esan bezala, ekologia politikoa korranteak anitzak direnez, beharrezkotzat jotzen da argitzea lan honetan kapitalaren, kulturaren eta naturaren arteko harremanak ulertzerako orduan, modernitateak eta garapenak horiengan edukitako eraginetik abiatzen dela. Hau da, atal honetan, ekonomiaren arrazionaltasunaren osaeran modernitatearen iruditeria ezberdinek eta garapenaren sinesmen politikoa duten eragina azaleratu nahi dela; modu honetan, ekonomia kapitalistak zer nolako gizarte eta natura eredu arautzen edo ekoizten dituen azaltzen saiatzeko; eta, zehazki, zer nolako hazi eta hazi ekoizpen eredu bultzatzen duen azaltzen saiatzeko.

Modernitateaz hitz egitea beraz, garrantzitsutzat jo da honi lotzen zaion unibertso filosofikoa ekonomiaren arrazionaltasunean duen pisua dela eta. Izan ere, modernitatean, errealitatera hurbiltzeko beste prozesu batzuen ordez arrazoiak eta jakintza zientifikoa gailendu izanak gizartea eta natura ulertzeko forma jakin bat finkatu baitzuen; hots, modernitatearen proiektuak prozesu ekonomikoetan oinarritukoak diren zenbait harreman eraldatu dituela. Zehazki, eraldatutako harreman horiek gizakien eta naturaren arteko harremana dira, alde batetik; eta, gizakien haien arteko harremana bestetik.

Gizakien eta naturaren arteko harremanari dagokionez, aipatzekoa da modernitatean, gizakiak unibertsoa edo natura menperatzeko nagusitasun zientifiko-teknikoan konfiatzen hasi zirela; hau da, natura, zientziaren eta teknikaren bidez menperatu zitekeela pentsatzen hasi zirela eta, are gehiago, menperatu beharra zegoela

ponentsatzera igaro zirela, alegia (Unceta, 2009:5). Ildo beretik, unibertso filosofiko horrek arrazionaltasun ekonomikoarekin duen harremana argitze aldera, honakoa aipatzerakoan Giraldo (2018) egiten duen definizioa hartzen da:

“La racionalidad económica supone que todos los miembros de la sociedad se organizan movilizadas por el interés de ganancia, y que sus acciones pueden comprenderse por la producción y distribución de mercancías, al mismo tiempo que percibe la naturaleza como un bien sujeto a ser tranzado en términos de los valores del mercado” (Giraldo, 2018:45).

Hau da, merkatu ekonomia nagusitzen hasten den aldi berean, ezagutza sortzeko edo ekoizteko modu jakin bat hedatzen dela, natura eta lana merkantilizatzearen bidez giza eta ingurumen dimentsioak objektu bihurtzen dituen. Aldiz, natura merkantzia bat balitz bezala ulertzea arazoaren parte dela kontsideratzen baldin bada ere, lan honetan, *Natura/Gizartea* binomioa ere arazoaren parte dela sostengatzen da. Izan ere, bestelako dualismoei biolentziarekin daukaten harremana aitortzen joan zaien bitartean, badirudi, gaur egun oraindik ere, natura eta gizartea bi substantzia ezberdin eta bereiztuak direla defendatzen duen ikuspegia ez dela biolentzia, desparekotasun eta zapalkuntza ezberdinekin lotzen.

Natura eta Gizartea bereizten dituen ikuspegi hori *kartesianra* bezala izendatu ohi da, eta halakorik, besteen artean, René Descartesi (1596-1650) zor zaio, gorputzaren eta adimenaren inguruan egin zuen bereizketaren argudioari, alegia. Izan ere, Moore (2020) azaltzen duenez, ikuspegi honetan biltzen diren mundu ikuskerak, XVI. eta XVII. mendeetan zehar gertatutako «iraultza zientifikoan» garatu ziren, *iraultza kartesian* ere deitu ahalko zitzaion honakoak hiru ondorio nagusi eduki zituelarik:

“[...] «impuso un estado ontológico en entidades (sustancia) en oposición a las relaciones (es decir, la energía, la materia, las personas, las ideas y demás pasaron a ser cosas)»; segunda, «impuso [...] una línea en la que predominaba una lógica disyuntiva (en lugar de conjuntiva)»; y, por último, «favoreció la idea de un control deliberado sobre la naturaleza a través de las ciencias aplicadas»” (Moore, 2020:36).

Beraz, dualismo kartesianra gaur egun, ingurugiroari dagozkion ikuspegi filosofiko, analitiko, zein ikertzeko formetan oraindik ere nagusitu ohi den paradigma da. Honek dituen ondorio guztiekin. Hau da, honako ikuspegian, natura objektu bat balitz bezala ulertzea betikotzen da, gizartearengandik bereiziz eta, kontrolatzea, zein menperatzea zilegi bezala ulertzen dena.

Ordea, berriro ere arrazionaltasun ekonomikora itzuliz, honen hedatze momentu gorena industrial iraultzaren garaian kokatu beharra dago; izan ere, ekoizpen teknika

produktiboagoak sortu izanak, aurrerapena eta gizakien ongizatea modu unibertsean lortu ahal zirela pentsatzera bultzatu baitzuen (Unceta, 2009). Aitzakia izan edo ez izan, aurrerapen edo garapenerako amets horrek, nekazaritzaren modernizazioa bultzatu zuen hein handi batean; honakoa, mundu mailako gosetearen eta desnutrizioaren aurkako erremedio gisa saldu baitzen. Zehazki, “hobetutako” hazi edo barietateek, testuinguru honetan hartu zuten garrantzia handia, uzta kopurutsuak eskaintzen zituztelako, hain zuzen ere. Aurrerapen eta garapen ideia horiek ordea, zentzu edo esanahi jakin bat daukate, hazkunde ekonomikoarekin guztiz lotuta dagoen zentzu edo esanahia, eta merkatu ekonomiaren bilakaeraren norabidea zehazten eragin nabarmena eduki duena.

Hortaz, garapenaren diskurtsoak eduki dituen ondorioak hobeto ulertzeko, honen agerpena testuinguratzea komeni da. Hau da, Bigarren Mundu Gerraren ostean, Amerikako Estatu Batuek merkatu berriak aurkitzeko zuten beharra ulertuz gero, errazagoa izango da garapenaren proiektuaren agerpena ulertzea, baita honen helburuak ulertzea ere; zeren, alde batetik:

“Tomando como bandera la “guerra contra la pobreza” el objetivo era cambiar la maquinaria bélica colonial por un enorme proyecto “pacífico” de ayuda al mundo “subdesarrollado”, para transformarlo en un mercado masivo para los bienes y servicios del Norte Global (Illich, 2006; hemen aipatuta: Giraldo, 2018:55).

Ildo beretik, gosearekin eta desnutrizioarekin amaitzeko tresna gisa saldu baldin baziren ere, hobetutako hazi barietateek, nekazaritzaren modernizazio prozesua bultzatu zuen garapenaren ideiarekin zerikusi gehiago eduki dezakete. Eta, horretarako, garapenaren diskurtsoa *garapen/azpigarapen* kategoria bitarrean oinarritzen zen zeinaren beste helburuetariko bat, Arturo Escobarrek (2007) dioenez honakoa den:

“crear en todo el mundo los rasgos característicos de la sociedades avanzadas de la época: altos niveles de industrialización y urbanización, tecnificación de la agricultura, rápido crecimiento de la producción material y los niveles de vida, y adopción generalizada de la educación y los valores de la cultura moderna” (Escobar, 2007:20).

Hori dela eta, garapenaren diskurtsoa ez dago, soilik, hazkunde ekonomikoarekin harremanetan; baizik eta, bere proiektua aurrera eramanez ahal izateko berezkozat duela dimentsio koloniala. Hots, dikotomia hori, gizartea sailkatzeko modu berri bat baita, zeinaren bidez, garai kolonialetik oinordetutako desperekotasunak mantendu nahi diren; eta, aldi berean, oparotasun-egoera desiragarria eta gabezia-egoera ez desiragarria kontrajartzerakoan, ekonomia kapitalistarekin bat egiten duten ideiak agertzen diren; azken batean, “En el mundo real, más allá de la disputa académica sobre

los significados del término, desarrollo es lo que tienen las personas, áreas y países «desarrollados» y los demás no” (Esteve, 2009:2).

Ildo horretan, postgarapenak osatzen duen korrante anitzetik, *garapen/azpigarapen* egitura bitarra, *aditu/ez-aditu* planora hedatzen dela uste da. Ondorioz, ez-aditua, ez-jakin modura irudikatu eta haren jakintza zalantzagarriztat jotzen delarik tradizionala eta irrazionala delako; eta, finean, baita primitiboa, mitikoa eta atzeratua ere. Zentzu horretan, momentu batez, nekazaritza tradizionalaren inguruan mugitzen den ezagutzari erreparatuko nahi zaio. Izan ere, lehenago aipatutako jakintza zientifikoaren ordezt, badagoelako *lokala* bezala izendatu daitekeen ezagutzarik; zeinak, aipatutako postgarapenetik egiten diren kritikekin bat egin duen.

Ildo horretatik, Jan Douwe van der Ploeg-ek (1990) *ezagutza lokala* definitzerakoan, honakoa, ekoizpen prozesuekin zeharo nahasita dagoen ezagutza bat bezala definitzen du; hots, ekoizpen prozesuaren etengabeko interpretazioan eta balorazioan oinarrituz, beharrezkoa den momentuan eta nahi den moduan esku hartzeko aukera eskaintzen duen ezagutza bat bezala definitzen du. Esku hartze horiek ordeza, ezin dira zehaztasunez aurreikusi; eta, beraz, amaierako emaitzak aldakorrak izan ohi dira. Modu horretan, hartutako erabakiak eta jasotako emaitzak baloratzerakoan, ezagutza dinamiko eta konplexu bat osatzen da; halaber, ezagutza honetan erabiltzen den lengoaiak, ezagutza zientifikoan erabiltzen denarekin zerikusirik ez duelarik, kontzeptu metaforikoak baitira gehienbat erabiltzen direnak, eta “si se separan estos conceptos de las personas que los utilizan y/o de su contexto, se convierten en «inexactos»” (Van der Ploeg, 1990:363). Baina, “la naturaleza imprecisa de esos conceptos parece facilitar una exacta interpretación de la condición de una parcela” (Van der Ploeg, 1990:363-364).

Hortaz gain, ezagutza sistema lokala hazien kasuan nola egikaritzen den ulertzeko, hazien hautaketan kontuan hartzen diren irizpideak ere aldakorrak direla azpimarratzekoa litzateke; esate baterako, uzten, prezioen edo lursailaren baldintzen arabera hazi batzuk edo besteak aukeratzen direlako, alegia. Eta ez hori bakarrik. Baizik eta, hazien hautaketaren bidez haietaz egiten den hobekuntza prozesua, askotan nabariezinak diren egokitzen txikiek ezaugarritzen dutela. Hobekuntza hori beraz, astiro gertatzen da, soilik denbora epe luzeak igaro ostean nabaritu baitaiteke.

Ezagutza sistema lokal horren aurrean berriz, lehen esan bezala, ezagutza sistema zientifikoa gailendu zen. Eta, jadanik, nagusitze hori ahalbidetu zuten prozesuak azaldu baldin badira ere, honako ezagutza sistema zientifikoak nekazaritzaren esparruan dituen ezaugarriak ordea ez dira argitu. Honako ezaugarriak bada, ezagutza lokalari kontrajartzen zaizkionak dira, horien artean:

“El proceso de cultivo científico se inicia de modo característico en la formulación de un «tipo de planta ideal» [...] que debe ser «superior» a las variedades tradicionales. [...] El segundo paso consiste en la creación de un nuevo genotipo que contenga el mayor número posible de las características deseadas. [...] En tercer lugar, [...], las condiciones fenotípicas que harán eficaz el genotipo recién formado se obtienen, especifican y comprueban en instalaciones experimentales” (Van der Ploeg, 1990: 370-71).

Hau da, ezagutza zientifikoaren bidez hobetutako haziak, tipo ideal bat dute oinarri, eta beren ezaugarri mirarigarri horiek garatu ditzaten, ezinbestekoa dute ingurua moldatzea haiengana, eta ez alderantziz. Eta, azkenik, ezagutza sistema honek, denboraren birdefinizio bat ere egiten du. Izan ere, esan berri den moduan, hazi horiek baldintza jakin batzuk behar baitituzte haien garapen egokirako, horien artean denbora tarte jakin bat; eta, ondorioz: “el tiempo pasa a ser una condición básicamente continua a serlo discreta” (Van der Ploeg, 1990:373). Hots, lurraren ziklikotasunarekin hautsi eta haren ordeztengabeko produkzioa ahalbidetuko duen denbora lineala ezartzen dela (Giraldo, 2018:39), hain zuzen ere.

Halaber, lerro batzuk goraxeago, arrazionaltasun ekonomikoaren hedapenaren momentu gorena industrial iraultzaren eta iraultza zientifikoaren garaian kokatu baldin bada ere, eta kapitalismoaren osagai garrantzitsu bat baldin bada ere, kapitalismoaren jatorria kolonialismoaren garaietan kokatu beharrean gaudela azpimarratu nahi da. Izan ere, kapitalismoaren bilakaeraz edo modernitateaz hitz egitea kolonialismoa aipatu ere egin gabe ez baita zilegitzat jotzen lan honetan. Hortaz, kontu honen inguruan, soilik azpimarratu nahi da kolonialismoa modernitatearen alde iluna izanen dela (Quijano, 2000) eta kapitalismoaren jatorria, zein modernitatea mundu-mailako zentzuan ulertzerako orduan, honakoa, 1492an Amerika konkistatu zenean osatzen hasi zen mundu-sistema bezala soilik ulertu daitekeela, hain zuzen ere.

Beraz, azaldutakoarekin zera mahaigaineratu nahi izan da: modernitatean badagoela espazioak eta gorputzak arautzeko edo berregiteko desio bat; eta, horrela,

baita gizartea eta natura nolakoak izan behar diren definitzeko desio bat ere. Azaldu den moduan, iraultza zientifikoaren (edo iraultza kartesiarra) eta arrazionaltasun ekonomikoaren bidez natura-gizarte harremana era jakin batean arautu edo finkatu baitzen; zeinaren ezaugarri nagusiak horien arteko bereizketa, naturaren *kosifikazioa* eta hartatik eratorritako etekin edo aberastasunaren maximizazioa diren, besteen artean. Zehazki, hazien kasura estrapolatuz azaldutakoa, modernitatean, hazia ere modu jakin batean birdefinitzeko edota arautzeko dagoen desioa azaleratzen saiatu naizela, hain justu.

2.2. Ekologia-mundu ikuspegia, oikeios-a eta Kapitalozeno-a

Modernitatearen eta garapenaren ikuspegi hori gaintzeko saiakera egite aldera, lan honetan, kapitalaren, kulturaren eta naturaren arteko harremana ulertzerako garaian, Jason W. Moorek (2020) proposatzen duen *ekologia-mundu* ikuspegitik abiatuko gara; eta horretarako, nagusiki, *oikeios*-a izendatutako kontzeptuan ipiniko da arreta. Izan ere, gure buruari zer da natura galdetuz gero, oikeiosa, galdera horri erantzuteko aukera posibleetako bat izango litzateke; eta, galdera horrek erantzun mugatu edo dikotomiko bat eman behararen sentazioa transmititu baldin badezake ere, preseski, horixe da saihestu nahi dena.

Beraz, oikeiosa, gizartea eta natura bi elementu bereizi eta independente direnaren ustea gaintzeko asmoa duen proposamena da. Zehazki, “es una manera de denominar la relación creativa, histórica y dialéctica que existe entre las naturalezas humanas y extrahumanas, y siempre también en el seno de estas” (Moore, 2020:53).

Hau da, oikeiosa erdigunean jartzen duen ikuspegi honek, natura baliabide edo baldintza bat bezala ulertu beharrea, natura matrize moduan ulertzen duela; eta, zeinaren bidez edo zeinaren barnean garatzen den giza jarduera. Hortaz gain, gizateriak-naturan eduki dituen proiektu eta prozesu anitzak oikeiosaren produktuak direla sostengatzen du; eta horrexegatik, lan honetan, kapitalismoaren proiektua hor kokatu beharrea gaudela defendatzen da.

Hori dela eta, ikuspegi honetatik abiatuz gero, kapitalismoak naturaren gain eragiten edo ekiten duela mantendu beharrea, kapitalismoa, *bizitzaren sarearen* bidez gertatzen dela mantentzen da. Zehazki, kapitalismoa naturaren bidez edo naturaren

barnean gertatzen denari eusten zaiola, sistema sozial bat bezala ulertu beharrean *ekologia-mundu* bat bezala ulertuz, alegia.

Ildo beretik, gaur egungo garaia, *Anthropozeno*-aren garaia dela defendatzen duen narratibarik, azken hamarkadetan zehar hedatu eta nagusiki onartu dena. Hau da, Antropozeno delako kontzeptuaren inguruko irakurketa ezberdinen artean nagusitu denaren arabera, mundu modernoaren jatorria XIX. mendeko Ingalaterran aurkitzen da. Zehazki, halako aldaketa, ikatzak eta lurrinak ahalbidetu zutela planteatzen da, eta horien atzeko indarra *anthropos*-a izan zela, giza espeziea, hain zuzen ere (Malm eta Hornborg, 2017).

Irakurketa horren ordean, *kapitalozeno*-aren ikuspuntutik abiatzeak ordea, agerian uzten du aurreko diskurtsoak ezkutatzen dituen desparekotasun sozialak. Hau da, gaur egungo aroa, giza espezieak (gizateria osotasun bereiztu gabe bat bezala) naturarengan duen eraginarengatik ezaugarritzeak, espeziearen barneko desparekotasunak mahaigaineratzea nabarmen zailtzen du, guztiok ardura maila berdina eduki dugunaren sentsazioa transmitituz. Baina, beste ikuspegi batetik abiatuz gero, agerian geratzen da lurrinaren bidezko teknologia bultzatu zuena ez zela giza espeziea bere osotasun banaezinean izan; baizik eta, “[...] (el vapor) sólo pudo ser instaurado por los propietarios de los medios de producción” (Malm eta Hornborg, 2017:5).

Ildo beretik, aldaketa klimatikoaren testuinguru erabakigarrian, kapitalozenoaz aritzeak, honako sistemak eta haren oinarri kultural guztiak gaur egungo egoeran eduki duten pisua azalaratzen laguntzen duela uste baita; hala nola, hurbiltzeko kokapen hontatik abiatuz, espezieraren barne desparekotasunak kontuan edukitzea nabarmen errazten dela uste baita.

Izan ere, antropozenoaren diskurtsoaren atzean, badago *anthropos*-aren irudiarekin batera egituratzen den subjektibitate bat, aldaketa klimatikoaz eta honen kausetaz hitz egiterakoan gainontzeko guztiak barne hartzen dituen; baina, espezia, bestelako dominazio matrize ezberdinek zeharkatzen dutela kontuan hartzen ez duena, alegia. Hortaz, jarraian datorren atalean, *anthropos*-aren irudi eta subjektibitate horri ekofeministotik egiten zaizkion kritikak jasoko dira, modernitateak ekoiztutako beste subjektibitateekin harremantzeko saiakera eginez; eta, azkenik, gainontzekoak pentsatzeko beste forma edo proposamen bat plazaratuz.

2.3. Ekofeminismoa

Hortaz, esan bezala, ekofeminismoak egiten dituen ekarpenak interesgarriak izan daitezke aurreko atalean azaldutako ikuspegiaren hutsuneak zalantzan jartzen jarraitze aldera; izan ere, naturaren inguruko halako ulerkerek ez dakitelako zer den bizitza sostengatzeko ezinbestekoa dena. Horrexegatik, ekofeminismoak osatzen duen pentsamendu korrante anitzak honako afera lantzerako garaian zenbait gako eskaini ditzakeela uste da.

Lehen batean beraz, oikeiosaren inguruko azalpenik eman denean azpimarratu den bezala, giza jarduera ez da naturarengandik at gertatzen; baizik eta, naturaren bitartez edo naturak osatzen duen matrizean bertan gertatzen dela. Zentzu horretan ekofeminismoak aldarrikatzen duena zera da: norbanakoak naturaren parte izateaz gain, naturarekiko menpekoak ere bagarela (Herrero et al., 2009:14).

Bestalde, ildo horretatik, ekofeminismoak beste menpekotasun bat ere identifikatzen du, gorputzari eta honen zaurgarritasunari erreferentzia egiten diona: gizakien haien arteko menpekotasuna, hain justu (Herrero et al., 2019:16). Izan ere, gure gorputzek soilik biziraun baitezakete, eta batez ere bizitzako momentu zaurgarrietan, zaintzak bermatuko dituzten harremanetan murgiltzen baldin badira. Puntu honetan, mahaigaineratu beharra dago, historikoki, *beste* zaurgarri horiek zaintzeaz emakumeak arduratu direla eta arduratzen direla. Honakoaren zergatiak ordea, ez ditugu emakumeek zaintzarako dituzten gaitasun naturalak kontuan hartzea defendatzen duen kontakizunean bilatu behar; baizik eta, patriarkatuak ezartzen dituen arauetan bilatu behar ditugula, horien bidez emakumeei zaintzale rola inposatzen zaien heinean behintzat. Baina, kontu horietan sakondu beharrean, izaki *ekodependenteak* eta *interdependenteak* garenaren ideiarekin geratu gaitezten.

Ildo horretatik, sistema ekonomiko kapitalista eta harekin datorren oinarri kultural guztia menpekotasun bi horiei kontrajarriz garatu direla defendatzen da. Ez baitute kontuan hartzen bizitza sostengatzeko beharrezkoa dena, ez planetaren muga fisikoak, ezta erreprodukzio sozialerako beharrezkoak diren denborak ere. Sinesmen arriskutsu bat daukate oinarri: autonomia faltsu baten sinesmena, bai naturarekiko, bai gainontzeko pertsonetikiko, zein izakiekiko faltsua den autonomia baten sinesmena, alegia. Zeren, ekonomia kapitalistaren ontologiari izenondorik gehitu beharko bagenio, beste batzuen artean, halako izenondoa *indibidualista* izango litzateke.

Ildo beretik, aurreko atalean agertutako *anthropos*-aren irudira itzuliz, hau, ekodependenteak garenaren baieztapenari kontrajarriz garatu den irudia dela uste da; izan ere, giza espeziea erdigunean jartzen duen honako ikuspegiak ez baitu aipatutako ekodependentzia hori aitortzen. Eta, modu horretan, giza espezieak bestelako espezieek baino garrantzia gehiago duela aditzera emanez, beste horien ustiapena zilegitzen laguntzen du; are gehiago:

“El ser humano varón, occidental y racional, desgajado de la naturaleza, desresponsabilizado de los demás e incluso de su propio cuerpo, se convierte en el sujeto político abstracto determinante de la historia. El antropocentrismo es más bien androcentrismo” (Herrero et al., 2019:24).

Hau da, gure buruari galdetuko bagenio ea modernitateak zer-nolako subjektibitate ekoiztu duen, hau, aipatutako ekonomiaren ontologia indibidualistatik azaldu beharko genuke. Izan ere, modernitateak sortutako subjektibitatea *homo economicus* bezala izendatutakoa baita. Gizona, arrazionala, erabakiak hartzerako orduan etekina lortzera begira hartzen dituen, beste gorputzengatik erabakiak hartzeko askatasuna duela sinesten duena eta egitea posiblea baldin bada, egitea, suposatzen duen hedonismoz josita dagoena. Beraz, *homo economicus*-a, norbanako bakartu bat, autosufizientea, arrazionala, berekoa eta erabakiak prozesu indibidual baten bidez hartzen dituen litzateke, horretarako erabilgarritasunaren ulerkera arrazionala egiten duena eta honakoa ahalik eta gehien esplotatzen saiatzen dena.

Baina, esan bezala, irudikapen hori fikzio bat da. Subjektu hori existitzea ahalbidetzen duen beste mila bizitza baitaude. Haatik,

“[...] la economía, la política y la cultura se han constituido como si «flotasen» por encima y por fuera de la naturaleza y de los cuerpos; como si el planeta Tierra no tuviese límites y los seres humanos y su tecnología pudiesen controlarlo a su voluntad, invisibilizando y relegando a espacios marginales y no prioritarios la cíclica tarea de cuidar y regenerar cotidiana y generacionalmente la vida humana” (Herrero et al., 2019:17).

Zentzu horretan, hazien gaiaren inguruan, aipatutakoa ikus daiteke. Izan ere, hazien ekoizpen eredu industrialak ondorioz edukiko ez balu bezala jarduten baita; elikadura segurtasunaren berme den biodibertsitatearen beharra edukiko ez bagenu bezala, edo nekazaritzan diharduten ekoizle txikien beharra edukiko ez bagenu bezala, hain zuzen. Badaukagu gure barnean lehenago ere aipatu den sinesmen arriskutsu hori, gure kabuz bizitzeko gai garenaren eta teknologiak edozer konpondu dezakeenaren sinesmena.

Baina, ekonomiaren ontologia indibidualista barnetik atzeratzeko saiakera horretan, interesgarria izan daiteke Donna Haraway-k (2016) proposatutako *ontologia erlazionala* kontuan edukitzea; bide batez ere, sinesmen horiek guztiak hankaz gora jartzen bukatzeko.

Izan ere, Haraway-k proposatzen duena honako esaldian laburbildu baitaiteke: “los seres no preexisten a sus relaciones” (Haraway, 2016:6). Hau da, izakiak haien arteko harremanak baino lehen existitzen direla baieztatzeak, mantentzen ditugun harremanek ondorioak dituztela baieztatzea garamatza. Horren haritik, Haraway harremanetaz ari denean, honakoek zaintza berezkotzat dutela babesten du, eta hori bakarrik ez; baizik eta, De la Bellacasak (2017) argitzen duen moduan “no es solo que las relaciones impliquen cuidado; el cuidado es, de por sí, relacional” (De la Bellacasa, 2017:1).

Hau da, Haraway-ren ustez, zaintzak beharrezkoak ditu izaki orok, inor ez baita guztiz autosufizientea bere kabuz. Zaintza balioan ipintzeak beraz, interdependentzia aitortzea dakar, menpekoak eta zaurgarriak diren eta zaintza, bai ala bai, beharrezkoa duten izakiak aitortzea. Halako zaintzarik ordea, ez dator aurretiaz emana; edo, beste modu batera esanda, “para ser, la vida necesita, de algún modo, que se la atiende” (Bellacasa, 2017:2).

Orobat, María Puig de la Bellacasak (2017) dioenez, Haraway-k (1995) proposatutako *ezagutza kokatua* kontzeptua abiapuntu hartuz, honakoa, *zainduz pentsatzeko* forma bezala interpretatu daiteke. Izan ere, *ezagutza kokatuta* egoteak zera esan nahi baitu:

“Si de manera no tan perversa, la objetividad dejara de referirse la falsa visión que promete la transcendencia de todos los límites y responsabilidades, para dedicarse a una encarnación particular y específica. La moraleja es sencilla: solamente la perspectiva parcial promete una visión objetiva” (Haraway, 1995:326).

Hau da, ezagutza eta pentsamendua, ulertezinak direla pentsatzeko erabiltzen ditugun munduak ahalbidetzen dituzten erlazio mordoa kontuan hartu gabe. Ondorioz, denbora luzez arrazoiari eta zientziari atxikitu izan zaion objektibitatea zalantzan jartzearen beharra agerian geratzen da.

Izan ere, Haraway-rentzako, errealitatea denbora guztian baitago martxan, ontologia etengabeko sorkuntza fasean aurkitzen baita. Pentsatzeko forma ere erlazionala dela alegia; eta, zentzu horretan, denak parte hartzen duela, denak eragiten duela mundua sortzearen etengabeko prozesuan. Zehazki, munduaren inguruko ikuskera honek, beste ez-gizatiarrek ere zentzua, boterea eta agentzia propioa daukatela onartzen du. Halaber, pentsatzeko forma erlazional bat den heinean, horrek esan nahi duelarik zaintza beharrezkoa duela; lehen esan bezala, ez dagoelako zaintzarik gabeko erlaziorik, hain zuzen ere.

Eta berriro ere erlazionaltasunaz eta zaintzaz ari garenez, nabarmentzekoa da horrek ez duela esan nahi gatazkarik gabeko mundu batean bizi garenik. Esan edo azpimarratu nahi duena zera baita: zaintza ez dela beti armoniosua eta baketsua, gatazkatsua ere izan badelako.

Ildo beretik, Haraway-rentzako, hausturek ere, heterogeneitatea edo harremana sortzen edo sustatzen dutela onartzea ezinbestekoa da. Esan bezala, erlazioa egonez gero zaintza egongo baita; baina, gure zaintzek deskonexioak ere sortzen dituztenaz jabetu behar baikara, ezin baitugu mundu guztiaz zaindu, mundu honetan guztiak ez baitu garrantzirik, heriotzarik gabe bizitzarik ez dagoen bezala (Bellacasa, 2017).

Halaber, pentsatzeko forma erlazionalaren proposamena zaintzari, hausturei eta harremani garrantzia ematen dien proposamena baldin bada ere, interesgarria izan daiteke azpimarratzea aztertzen eta behatzen ditugun horiek ez daudela hor, soilik, haiekin pentsatzeko; baizik eta, haiekin bizitzeko ere egon badaudela. Garrantzitsutzat jotzen da honakoa, zeren, zaintza modu gizatiarraz gain, zaintza-modu-gizatiarraz haratago dauden zaintza moduak mahaigaineratzen baititu. Hau da, ez-gizakiak diren horiek ere, zaintzak beharrezkoak dituztela mahaigaineratzen duela eta zaintza hauek ere balioztatu egin behar direla aldarrikatzen duela; nahiz eta, ez-gizakietaz zaintzea horien objektifikazioan erori gabe prozesu inozente bat ez dela ere aitortzen den. Zentzu horretan:

“un cuidado adecuado exige una forma de conocimiento y curiosidad frente a las necesidades situadas de un otro (humano o no) que únicamente se hace posible en relaciones que transformen a los entrelazados seres: vivir-con es un devenir-con” (Bellacasa, 2017:20).

Izan ere, badaudelako ordezkariaren bat beharrezkoa duten izakiak, bestekotuak izan diren izaki ez-gizatiar horiek, esate baterako. Hori dela eta, zaintzak, uste duguna

baino garrantzia handiagoa dauka ez-gizakiekin mantentzen ditugun harremanetan; eta, horrexegatik, egokia izateaz arduratu beharrean gaude, esan bezala, zaintza ez baita bere kabuz gertatzen. Finean:

“Al encajar las relaciones de cuidado dentro de unos entrelazamientos situados muestra que la responsabilidad hacia el qué/quién cuidamos no implica por necesidad estar a su cargo, sino estar implicados” (Bellacasa, 2017:20).

Finean, hazien kasura itzuliz, bioaniztasuna eta bestelakoak bermatu nahi izanez gero, lurra zaintzeak duen garrantziaz jabetu behar gara. Zaintzarik gabeko harremanak bizitza desagertzeko arriskua suposatu baitezakete; eta, neurri handi batean, horixe bera baita nekazaritza industrialeko lursailetan gertatzen ari dena. Hau da, ez-gizakiekin harremanak mantentzen ditugun heinean, haiekin ere pentsatu beharrean gaudela, baita haiekin bizi beharrean gaudela ere. Eta, argi dago, erlazio horiek zaintza beharrezkoa izango dutela; beraz, hazien kasuan berdina litzateke. Ezin dugu pentsatu zaintzen ez dugun horrek betirako iraungo duenik gure alboan, hain zuzen ere.

2.4. Sareak, aktoreak, boterea eta biolentzia

Sare aktoreen teoria deiturikoak, eduki dezake zerikusirik Haraway-k proposatutako pentsatzeko formarekin eta, agian, lan honen aztergai gisa *hazia* zergatik aukeratu den argitzeko gakoetako bat izan daiteke.

Honakoa azaltzeko berriz, aipatu beharra dago, David Bloorrek (1976) hirurogeita hamargarren hamarkadaren hasieran, praktika zientifikoak aztertzeko lau ildo nagusi zehaztu zituela. Horietako bat *simetria printzipioa* izan zen. Honakoaren arabera, egiazko, zein gezurrezko ezagutza, kausa edo zergati sozialen bidez azaldu beharrekoak dira. *Sare aktoreen teoria*-ren sorrera, hein batean behintzat, honako printzipioari egindako hainbat kritikari dagokio.

Egindako kritika nagusia honakoa litzateke: halako simetria printzipioa, asimetria batean oinarritzen dela; zehazki, asimetria hori natura eta gizartea ulertzeko moduan agertzen delarik. Hots, onartzen dugula natura eraikitako produktu bat dela, gizartea sikiera zalantzan jartzen ez dugun bitartean, aurretiaz emandako zerbait izango balitz bezala ulertzen baitugu, alegia. Izan ere, printzipio horren arabera, azaldu beharrekoa natura baita, zergati sozialen bidez azaldu beharrekoa, hain zuzen ere. Ondorioz, *sare aktoreen teoriaren* arabera, dualismo finko eta eztabaidaezinetan oinarritutako

azalpenak alboratu egin beharko genituzke; zeren, “tanto sociedad como naturaleza, antes que causas, son consecuencias” (Domènech eta Tirado, 2005:4).

Hori dela eta, sare aktoreen teoriak kritika egiteaz ez ezik, proposamen bat ere egiten du; zehazki, proposamen hori *simetria printzipio orokortua* deiturikoa da. Honakoaren oinarriak ondo ulertzeko berriz, beharrezkoa da hainbat konturi erreparatzea.

Lehenbizi, teoria honek *heterogeneitatea*-ren alde egiten duen apustuan ipini behar da arreta; izan ere, simetria printzipio orokortua ondo ulertzeko ezinbestekoa baita honakoa aintzat hartzea. Hortaz, heterogeneitateaz hitz egiten da, ulertzen delako entitateak ez direla haien harremanetatik kanpo existitzen. Hau da, ezin ditugula ulertu, haien osaeran ezinbestekoak diren harremanak ulertu gabe; entitate horiek beste entitate batzuekin mantentzen dituzten harremanen emaitza baitira.

“Tanto las entidades que denominamos sociales como las llamadas naturales son construcciones o emergencias de redes heterogéneas, de entramados compuestos por materiales diversos cuya principal característica es precisamente la mencionada heterogeneidad que se da entre ellos” (Domènech eta Tirado, 2005:4).

Zentzu horretan, garrantzitsua da teoria hau abiapuntu hartzen duen aztertzaileak ez dezan soziala eta naturala denaren artean, edo naturala eta teknologikoa denaren artean bereizketarik egin. Halaber, garrantzitsua delarik ez egoztea entitate bati besteari baino garrantzia gehiagorik; esate baterako, gizakien arteko harremanei, gizakien eta ez-gizakien arteko harremanei baino garrantzia gehiago ematen zaienean bezala. Hau da, osotasunaren batasuna baino lehen, parte edo zatien heterogeneitatea hartuko dela kontuan:

“individuos, hechos, estructuras o relaciones son productos, efectos a posteriori de lo que es sólo una maraña de materiales heterogéneos, yuxtapuestos, unidos y configurados por las relaciones que son capaces de establecer o sufrir” (Domènech eta Tirado, 1998:25, hemen aipatuta: Domènech eta Tirado, 2005:5)

Baina, orduan, nola izendatu ditzakegu sare horietan parte hartzen duten entitate horiek? Objektuak ala subjektuak al dira? Honako teoriaren arabera, ezingo genuke entitate bakoitza objektu edo subjektu gisa betikotu; baizik eta, egoeraren arabera entitate bakoitza gehiago hurbilduko dela horietakoren batera, edo beste modu batera esanda:

“En primer lugar, que son una posición o momento entre el sujeto y el objeto; entre un sujeto y un objeto concebidos como momentos o efectos finales de procesos de traducción que implican la

ordenación, distribución y asignación de identidades a diversos materiales relacionados entre sí; entre la relación y la mónada. Indican una posición intermedia, una posición frágil, efímera, que rápidamente será traducida y convertida en otra distinta. En segundo lugar, que, al igual que un vector, pueden tener o presentar una direccionalidad según el momento en el que sean descritos, según la ordenación o distribución en que aparezcan: hacia el sujeto, cuasi-sujeto, hacia el objeto, cuasi-objeto” (Tirado eta Mora, 2004:118; hemen aipatuta: Domènech eta Tirado, 2005:5-6).

Zentzu horretan, hazia egituratzen duen harreman mundua aztertzerako garaian, *sare-aktoreen teoria*-rekin bat eginez, honakoa ez da objektu bat bezala ulertzen; baizik eta, harreman sare baten parte den entitate bezala ulertzen dela, eta horixe bera dela aztertu nahi dena. Sare horretan, aipatutako heterogeneitatea egituratzen da, eta halakorik kontuan hartuz gero, haziaren munduan aktore ugariak parte hartzen dutenaz ohartuko gara; esate baterako, haziak berak, lurrak, nekazariak, teknikariak eta baita beste abar luze batek ere.

Ildo beretik, teoria honen bidez, ez-gizakiekin mantentzen ditugun harremantzeko moduak zalantzan jartzen dira. Eta, hau hobeto ulertzeko, Latour-ek (2019) *Dónde aterrizar. Cómo orientarse en política* liburuan aztertzen duen aldaketa politikoa hartu dezakegu adibide gisa; edo hobeto esanda, beti egon den, baina ikusi nahi izan ez dugun elementu bat oldarka sartu dela gure artean: autoreak “lo terrestre” bezala izendatzen duena eta Lurrari erreferentzia egiten diona, alegia. Hau da, honako adibidearen inguruan interesgarria suertatzen dena zera da: autoreak Lurrari, edo terrestrea denari, egozten dion eragiteko gaitasuna, aktore politiko gisa ulertzen baitu; eta beraz, baita subjektu bezala ere. Honekin aditzera eman nahiko nukeena, hazien kasura itzuliz, haziak ere eragiteko gaitasuna dutela da, eta eragin horiek zeintzuk diren argitzeko sareko partaideak diren beste aktoreekin mantentzen dituzten harremanei erreparatu behar zaiela. Finean, objektibatuak eta gauzak bihurtu diren horien errealitate soziala sortzeko gaitasuna aztertu nahi dela haziaren kasuaren bidez, hain zuzen ere.

Azkenik, marko teorikoari amaiera emateari begira, lan honetan boterearen eta biolentziaren zein ikuspegi jasotzen den azalduko da laburki, botereak aipatutako sare horietan duen garrantzia dela eta. Horretarako, Michel Foucault-ek (2021) “El sujeto y el poder” deituriko artikulua hartzen delarik abiapuntutzat; eta, bertan, autore honek boterearen inguruan zera dio: “El ejercicio del poder consiste en guiar la posibilidad de conducta y poner en orden sus efectos posibles” (Foucault, 2021:23). Hortaz, boterea, ekintza batzuek beste ekintza batzuk moldatzerakoan gauzatzen dena litzateke; kontuan hartuz, botere harremanak ezartzeko, bi elementu hauek ezinbestekoak direla:

“[...] «el otro» (aquel sobre el cual es ejercido el poder) ampliamente reconocido y mantenido hasta el final como la persona que actúa; y un campo entero de respuestas, reacciones, resultados y posibles invenciones que pueden abrirse, el cuál está enfrentando a una relación de poder” (Foucault, 2021:22).

Hots, “bestea” edo bestekotua denaren beharra agertzen zaigula edozein botere harremanetan eta baita boterea gauzatzearen aurrean sortzen diren, edo behintzat sortu daitezkeen, erresistentziak. Ildo beretik, botere harremanetan biolentzia agertzen denean, honakoaren inguruan honako hurbilpenarekin bat egiten da:

“Una relación de violencia actúa sobre un cuerpo o cosas, ella fuerza, doblega, destruye, o cierra la puerta a todas las posibilidades. Su polo opuesto sólo puede ser la pasividad, y si ella se encuentra con cualquier resistencia no tiene otra opción que tratar de minimizarla” (Foucault, 2021:22).

Zentzu horretan, biolentzia, botereari aurre egiteko aukerarik gabe geratzen zaren momentua litzateke, egitea behartzen dizutena egitea beste aukerarik ez duzunean gertatzen dena, hain justu. Hazien kasurako berriz, biolentzia nagusi horiek, nekazarien autonomiaren galera eta biodibertsitatearen galera lirateke; baina, hauek ezin dira ulertu, hazia parte den sarean dauden botere harremani jaramonik egin gabe. Hau da, biolentzia horiek aztertzeke, beharrezkoa dela boterea aktore anitzeko sare horretan nola egikaritzen den ere aztertzea, hain zuzen.

3. Testuingurua

Bestalde, zenbait konturi heltzea komeni da lana inguru geografiko eta kultural jakin batean kokatze edo testuinguratze aldera. Hau da, atal honetan, ikertuko dena noiz eta non finkatzen den zehaztuko dela. Horretarako, kasu honetan, bilakaera sozio-historikoaren berri jasoko da, baita kontuan edukitzea komeni den zenbait legedia ere, azkenik egungo une sozio-historiko eta geografikoan kokatzeko.

Nekazaritzaren modernizazioaz hitz egiten dugunean beraz, erreferentzia egiten diogu azken mende eta erdian; baina, bereziki, XX. mendeko bigarren erditik aurrera, nekazaritzaren eremuan gertatuko aldaketa multzoari. Aldaketa horien oinarriak zeintzuk diren azaltzeari ekin baino lehen ordea, aldaketa horien jatorria argitzea lagungarria izan daiteke.

Ildo beretik, XX. mendean bizitako bi mundu gerren ostean, bazegoen antza Iparralde Globaleko herrialdeen artean ardura edo kezka komun bat beste ardura edo kezka batzuen artean nabarmentzen zena: biztanleriaren hazkundera zela eta sortutako gosea eta desnutrizioa, hain zuzen ere. Arazo horien aurrean beraz, nekazaritza

produktiboago baten beharra aurkeztu zen konponbide gisa; eta Vandana Shiva (2003) dioenarena arabera, merkataritza librearen akordioen atzean ezkutatu egiten dira naturaren uzta, hazien uzta eta nutrizioaren uzta apurtzeko era berritzaileak (Shiva, 2003:17).

Gose eta desnutrizio horien jatorria nekazaritzan bilatu beharrez ordea, beste autore batzuek (Giraldo, 2018 eta Shiva, 2003) Iparralde Globaleko herrialdeen hedapen ekonomikoan bilatu beharra dagoela salatzen dute; eta, hortaz, arazo horien kausa nekazaritza eremuan bilatu beharrez, sistema ekonomiko kapitalistan (besteen artean) eta honek nekazaritzan duen eraginean bilatu beharko genukeela defendatzen dute. Izan ere, neoliberalizazio prozesuek, desregulazio eta liberalizazio prozesuek, agrikultura esplotazio txikiak desagerraraztea bultzatzen baitu. Hots, monokultibo industrialaren ezarpenaren bidez, neoliberalizazioaren aurretik mendeetan zehar biztalaria elikatzeko baliatu diren uztak eta landare aniztasuna; zehazki, polilaborantza, suntsitu egin baitira proiektu neoliberalak ahalbidetuta. Eta, hori bakarrik ez. Baizik eta, egoera horretan laboreak lantzen zituzten pertsona asko lanik gabe geratu direla eta elikagaiak inportazio bidez lortzera behatuta aurkitu direla (Shiva, 2003).

Hala eta guztiz ere, arazo horien jatorria nekazaritzan zegoela onartuko bagenu ere, berdin-berdin ez genuke azalduko nola, behin nekazaritzaren modernizazioa gertatutakoan, gaur egun oraindik ere, gosea eta desnutrizioa errealitate nagusiak diren mundu mailan, eta ez soilik mantendu diren errealitateak direla, baizik eta areagotu egin diren errealitateak ere badirela, alegia.

Izan ere, 2008. urterako, elikagaien ekoizpena urtero %2 baino gehiago hazi zen bitartean, munduko biztanleria %1,14 hazi baitzen. Hots, egun bazegoela biztanleria elikatzeko adina elikagai; baina, gertatzen zena zera zela: gose ziren horietatik %90a pobregia zela ekoiztutako elikagaiak erosi ahal izateko (Hansen-Khun, 2007; Rossi eta Lambrou, 2008; hemen aipatuta: Holt-Ginénez eta Patel, 2008:26). Hortaz, gosea eta desnutrizioa elikagaien gabezia kokatzen duen argudioa bertan behera geratzen da halako datuak aurkezten direnean; eta, aldi berean, argi geratzen da, gaur egun, gosea eta desnutrizioaren kausak pobrezian bilatu beharrez gaudela.

Gainera, ez dator gaizki oroitzea, gosea eta desnutrizioa ez direla soilik egungo kontuak, baizik eta aspalditik gertatzen ari diren errealitateak direla. Zehazki, gose den jendea 1986 urterako 700 miliokoa zen, 1998rako 800 milioikoa, eta 2008rako 982

milioi edo gehiagokoa (Lappé et al., 1986; Lappé et al, 1998; Matthews, 2008; hemen aipatuta: Holt-Ginénez eta Patel, 2008:28). Halaber, elikagai-krisiaz hitz egiten hasi baino lehenago ere, 852 milioi pertsona jadanik gose ziren (De Schutter, 2008; hemen aipatuta: Holt-Ginénez eta Patel, 2008:28); eta, horietatik ia 600 milioi emakumeak eta haurrak ziren (UNIFEM, 2005; hemen aipatuta: Holt-Ginénez eta Patel, 2008:28).

Nekazaritzaren modernizaziora itzuliz ordea, honakoaz hitz egiterakoan ezinbestekoa da *Iraultza Berdea* bezala izendatutakoaz hitz egitea. Izan ere, “A la modernizacion de la agricultura, basada en la industrializacion de los insumos agricolas, le llamaron la «Revolucion Verde»” (Holt-Giménez eta Patel, 2008:46). Hau da, nekazaritzaren modernizazioaren osagai nagusiak laburbilduz jarraian zerrendatzen direnak lirake: nekazaritzaren mekanizazioa; monokultiboen garapena (barietate hobetuen agerpena); eta, aurrekoek ezinbestekoak dituzten bioteknologien (ongarriak, pestizidak eta herbizidak nagusiki) garapena.

Halaber, hazien garrantziaren gorakada une horretan kokatu beharrean gaude, nekazaritzaren modernizazio garaian, hain zuzen ere. Izan ere, haziak, nekazaritza ekoizpeneko lehen pausua edo bitartekoa dira, nekazaritza sistemen erreprodukzioa ahalbidetzen dutenak, hain justu. Hori dela eta, nekazaritza sektoreko enpresa handiak hortaz jabetu zirenean, diru asko inbertitzen hasi ziren hazien hautatze eta hobetze prozesuetan, barietate produktiboagoak sortzea helburu.

Gertaera horiek medio, hazi barietate hibrido berriak sortzen hasi ziren eta garrantzia nabarmena bereganatzen joan ziren. Ildo beretik, hibridoek hedapenarekin batera, hazien inguruko ikerkuntzan eta hobekuntza genetikoan inbertitu zedin, hauen pribatizazio prozesua bultzatu zen. Hots, prozesu horretan gehien erabili ohi izan den tresna legegintza bera delarik, bereziki, erregistro legeen eta jabetza intelektualaren bideak.

Labur aipatzearren, erregistro legeei dagokienez, haziak ekoizten dituen pertsona oro erregistratuta dauden barietateak merkaturatzera behartuta dago; eta horretarako, barietateak ezberdinak, uniformeak eta egonkorak izan behar dira. Aurreraxeago azalduko den bezala, nekazal praktika tradizionalan oinarritutako biodibertsitateak ez ditu irizpide horiek betetzen; eta, ondorioz, honako erregistro legeek hazi barietate komertzialei mesede egiten dien bitartean, bestelako haziei kalte egiten die.

Beraz, azaldutakoak aditzera ematen duenez, Iraultza Berdeak, gosearekin eta desnutrizioarekin amaitzeko helburua ez betetzeaz gain, beste hainbat ondorio ere eduki ditu nekazaritzarengan.

Aipatutako monokultiboen hedapenak, mundu mailako nekazaritzaren homogeneizazioa ekarri zuen berekin (Egea eta Gonzalez, 2012); izan ere, lur eremu handietan hobetutako barietate gutxi batzuk lantzean oinarritu baitzen. Nekazaritzaren homogeneizazio horrek, biodibertsitatearen galera eta/edo “erosio genetikoa” bezala izendatutako prozesua bizkortu ditu (Gonzalez, 2006). Zentzu horretan, esate baterako, Hegoaldeko herrialdeen agro-biodibertsitatearen %90a jadanik desagertu egin da (Holt-Giménez eta Patel, 2008:47).

Orobat, hibridoek sustapenak, nekazarien autonomiaren galeran eragin zuzena eduki zuen, apurka-apurka, haziak lortzeko merkatura jotzen hasi baitziren haziak haiek ugaltu edo haien artean trukatu beharrean. Hau da, barietate horiek eskaintzen duten epe laburrerako produktibitatea dela eta, nekazari askok ezin dute aurretiaz lantzen zituzten barietate lokalak edo tradizionalak lantzen jarraitu, ez baitira beste barietate horiekiko behar bezain lehiakorrak. Honek, jakina, jadanik abian zegoen hazien merkantilizazio eta pribatizazio prozesuak erraztu zituen. Finean, lehen batean betetzen zuten funtzio bikoitzarekin —ekoizpen-bitartekoa izatearena eta aldi berean, elikagai izatearena— amaituz.

Bestalde, nekazaritzaz hitz egiterakoan, ezinbestekotzat jotzen da momentu batez emakumeek bete izan duten eta betetzen duten funtzioari erreparatzea. Izan ere, landa- eta nekazaritza-eremuan, orokorrean, gizonak salmentarekin edo trukearekin zerikusi gehiago duten nekazaritza-lanetan aritzen dira; eta, emakumeak berriz, etxearen mantentze-lanetan eta familiako kideen zaintza lanetan. Hots, gizonek egiten dituzten lan horiek esfera publikoarekin eta produktiboa denarekin lotzen den bitartean, emakumeek egiten dituzten lanak esfera pribatuarekin eta erreproduzioarekin lotzen direla.

Honek guztiak, zerikusi handia dauka biodibertsitatearen kudeaketarekin. Izan ere, “Al dedicarse las mujeres con mayor intensidad a las tareas hortícolas y los hombres a las labores del campo, la cantidad y variedad de especies cultivadas y mantenidas por unas y otros ha sido muy diferente” (Barba, argitaratzeke). Beste autore batzuek defendatzen duten lez: lanaren banaketa sexualak nekazaritzan emakumeak

biodibertsitatearen kontserbazioan gehiago inplikatzera eragin du (Oakley y Momsen 2007; Padmanabhan 2011; Reyes-García et al. 2010; Vogl y Vogl-Lukasser 2003; hemen aipatuta: Barba, argitaratzeke).

Hau da, emakumeek landutako baratzetan biodibertsitate gehiago egotearen zergatien artean, emakumeek tradizionalki hauetaz egin duten erabilpen anitzagoan aurkitzen da, aniztasun kulturalaren eta biodibertsitatearen arteko harremana agerian uzten duena. Modu horretan, emakumeak, sendabelarrak, eskaintza erlijiosuak egiteko erabiltzen diren landare ornamentalak mantentzeaz arduratu dira; hala nola, galtzear zeuden barietateak mantentzeaz familiaren edo komunitatearen osagai identitario gisa. Hala, bada, emakumeak tradizioaren eta identitate familiar-komunitario gisa eraiki dira (Reyes-García et al., 2010; hemen aipatuta: Barba, argitaratzeke).

Ondorioz, lan honetan biolentzietaz hitz egiten denean, aurreko lerroetan zehar azaldutako prozesuei eta prozesu horiek eduki dituzten eragineei egiten zaie erreferentzia. Laburbilduz, eta beste asko ere egonen direla jakinik, lan honetan hazien munduaren inguruan identifikatzen diren biolentziak honakoak lirateke: 1) nekazaritzaren homogeneizazioa eta honek biodibertsitatearen galerarekin eta erosio genetikoarekin duen lotura, 2) nekazarien autonomiaren galera eta merkatuarekiko menpekotasunaren garapena, bereziki, hazien merkantilizazio eta pribatizazio prozesuen bidez gertatutakoa, eta 3) nekazal kulturaren galera, hari dagokion praktika, ezagutza, sinesmen, tradizio eta harreman komunitarioen galera, hain zuzen ere.

4. Helburuak

Beraz, hazien sektoreak mundu mailako ekonomian duen pisua ikusita, elikadura segurtasunerako suposatzen duten bermeaz jabetuta, eta ohitura, tradizio eta nekazal kultur ezberdinen mantentzean elementu garrantzitsuak direnez, honako kasua aztertzeke helburu orokor bat eta zeharkako helburu bi planteatu dira.

Helburu orokorra:

Lan honen helburu nagusia, hazien ekoizpen ereduen inguruan sortzen diren botere-harremanak, biolentziak eta erresistentziak edota alternatibak aztertzea da. Hau da, aztertzea harreman mundu hori egituratzerako garaian zein prozesu sozial eta kulturek eragiten duten; hala nola, hazi mota batzuen desagertzearen edo beste batzuen areagotzearen, zein berreskuratzearen zergatietan sakontzea ere.

Zeharkako helburuak:

ZH1: Hazien kasuaren bidez, gizartearen eta naturaren arteko harremana ulertzeke dauden modu ezberdinak mahaigaineratzea eta ulerkera bakoitzean gertatzen diren botere-harremanak, zein biolentziak plazaratzea.

ZH2: Aurreko helburuarekin lotuta, hazien ekoizpen eredu tekno-zientifikoaren aurrean sortzen diren erresistentzia edota alternatiba eruedetan sakontzea.

5. Planteamendu metodologikoa eta diseinu teknikoa

5.1. Metodoaren aukeraketa eta justifikazioa

Lanaren atal honen xede nagusia, finkatutako helburuak nola lortuko diren eta horretarako erabiliko den teknika azaltzea da; zehazki, ea zein metodo eta teknika izan diren aukeratutakoak argitzea eta horien zergatiak azaltzea.

Ildo horretatik, azterketa aurrera eramateko garaian, metodo kualitatiboa erabiltzea erabaki da. Beste metodorik aukeratu beharrean honakoa aukeratu izanaren arrazoen artean, lan honen helburu nagusia lortzera begira eskaintzen duen egokitasuna aurkitzen da. Izan ere, kontuan edukiz gero lan honen helburu orokorra “hazien ekoizpen

ereduaren inguruan sortzen diren botere-harremanak, biolentziak eta erresistentziak edota alternatibak aztertzea” dela; honako helburua lortzeko, errealitatearen maila faktikoari, agerikoari edo gertaeren maila bezala ezaguna denari erreparatzea baino, diskurtsoen maila ezkutukoari edo sinbolikoari erreparatzea aproposagoa dela mantentzen baita.

Metodoaren egokitasuna argudiatzen jarraitze aldera, maila diskurtsiboa edo ezkutukoa azalpen eta argudiaketen maila dela kontuan hartu behar da. Hots, kanpoko egitateen atzean dagoenari (ideiak, baloreak, motibazioak, desioak ...) erreparatzen diela, jokaera eta jarrerei esangura eta azken zentzua emanez; eta, horretarako, zehazki, hizkuntzaren funtzio estrukturalari eta konnotazioari erreparatzen die.

Horren haritik, aztertuko den “objektua” diskurtsoa da, lengoaiaren bidez adieraz daitekeena alegia; halaber, errealitatearen maila honi dagozkion helburuak ulertzea eta interpretatzea direlarik. Baina, nola egiten da halakorik? Erantzuna interpretazioan aurkitzen da, diskurtso ezberdinen inguruan egiten den interpretazioan, hain zuzen ere.

Hortaz, gizarte errealitatearen mailak epistemologikoki, metodologikoki, zein teknikoki bi lurralde ezberdintzen ditu. Lan honetan, esan bezala, diskurtsoen mailan kokatzen garenez, honakoak epistemologikoki, metodologikoki eta teknikoki dituen berezitasun edo ezaugarri nagusiei erreparatuko diegu. Hori dela eta, diskurtsoen mailan epistemologiaak hermeneutikan aurkitzen du bere oinarria; metodologiak aldiz ikuspegi estruktural edo kualitatiboan; eta, teknikak azkenik, elkarrizketan kasu honetarako.

Beraz, esan bezala, metodo kualitatiboa aukeratu izanaren arrazoen artean honakoak eskaintzen dituen aukera analitikoak dauzkagu. Hots, halako metodoak, ikerketa intentsibo bat garatzeko aukera eskaintzen baitigu, sakontasunean oinarrituko dena, zabaltasunean oinarritu beharrean, aztergai dugun ikergaia ulertzen lagunduko diguna. Halaber, ikerketa eredu ireki bat planteatzeko aukera eskaintzen digu, aurrerapausoak, zein atzerapausoak emateko trabarik jartzen ez duena; eta, horrela, landa lanaren diseinuaren prozesuan zehar aldatzen joan daiteke, aldaketetatik ikasiz eta hauei egokituz.

Beraz, uste da, hazien ekoizpen ereduaren inguruan botere-harremanak eta biolentziak egituratzen direla; eta, zentzu horretan, hazi ekoizpen eredu nagusitik kanpo kokatzen diren ekoizpen ereduetan aritzen direnek ez daukatela hazien ekoizpen industrialean aritzen direnek duten botere maila berdina defendatzen da. Horrek, noski, sortu ditzakeen (eta sortzen dituen) biolentziekin; eta, zentzu horretan, esan daiteke nolabaiteko indarkeria sinbolikoa identifikatzen den heinean, metodo kualitatiboak ulertzea helburu duen ezkutuko maila horrekin topo egiten dela.

Zentzu horretan, lehen zeharkako helburuari (ZH1) erreparatuz gero, jadanik sumatzen da metodo kualitatiboaren beharra. Izan ere, “gizartearen eta naturaren arteko harremana ulertzeko dauden modu ezberdinak mahaigaineratzea ...” baldin bada lehenengo zeharkako helburua, argi ikusten da horretarako ideien, balioen eta pertzeptzioen munduan murgildu behar garela; edo, beste modu batera esanda, errealitate sinbolikoaren munduan. Era berdin bigarren zeharkako helburuari (ZH2) dagokionean, honakoak “hazien ekoizpen eredu tekno-zientifikoaren aurrean sortzen diren erresistentzia edota alternatiba ereduetan sakontzea” baita.

5.2. Ikerketa-teknikaren aukeraketa eta justifikazioa

Behin metodologiaren nondik norakoak apur bat kokaturik, esan beharra dago, lan honetan erabili den teknika sakoneko elkarrizketa izan dela.

Ikerketa-teknika hau aukeratu izanaren arrazoiak azaltzeari ekin baino lehen ordea, honako teknikaren deskribapen labur-labur bat egingo da. Sakoneko elkarrizketa beraz, fenomeno baten inguruan informazio sakona, konplexua edota aberatsa lortu nahi denean erabiltzen den teknika da; nahiz eta, adierazgarritasuna ezin duen ziurtatu, elkarrizketatuarentzako garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu baitaiteke (Juaristi, 2003:187). Haren inguruko definizio zehatzagorik emate aldera “Sakoneko elkarrizketa informazioa lortzeko asmoz elkarrizketatu baten eta elkarrizketagile baten artean egiten den elkarrizketa profesionala da” (Juaristi, 2003:187). Pertsona biren eta, soilik biren, artean egin daitekeen teknika da, emaitza onak eskuratzeko konfiantzazko giro erosoak sortzea beharrezkoa duena, etxekotasun edo lagunarteko harremana, hain zuzen ere.

Behin teknikaren azalpen laburra eginda, teknika hau eta ez beste bat aukeratu izanaren arrazoiak azalduko dira. Hortaz, lehen batean, sakoneko elkarrizketa aukeratu

da, kanpo portaerak behatuz ezin dugulako fenomenoaren sakoneko esanahia ezagutu; eta, aldiz, sakoneko elkarrizketarekin bai. Izan ere, aztertzen ari garen gaiaren inguruko arrazoiak, zergatiak edota ondorioak sakonean ezagutu nahi baitira; eta, bigarren arrazoiarekin lotuz, teknika aproposa da, gaiaren inguruan informazio gutxi daukagunean erabiltzeko, ikerketa honen kasua den bezala. Modu horretan, gaiaren inguruko lehen hurbilpen bat lortu dezakegu gaiaren inguruan dakiten pertsonekin honako teknika baliatuz. Hirugarren, eta azken arrazoa, ikerlariak berak egin dezakeen teknika bat den neurrian, beste teknika batzuk baino merkeagoa dela litzateke; izan ere, kontuan edukiz gero norberaren eskarmentua eta denbora; edo, beste modu batera esanda, baliagarri ditudan baliabideak, sakoneko elkarrizketa ikerketa honetara hobekien egokitzen den teknika dela uste da.

5.3. Ikerketaren diseinu teknikoa

Laginaren aukeraketari dagokionean berriz, argitzea komeni da, metodo kualitatiboa baliatzen den heinean, honakoaren adierazgarritasuna estrukturala izango dela; izan ere, lagin ez probabilistikoa erabiltzeko beharraren aurrean aurkitzen baikara, ez daukagulako gure ikergaiaren populazio edo unibertsoaren zerrendarik, hain justu. Baina, zein da lan honen unibertso edo populazio delakoa?

Bada, lan honen unibertsoa, Gipuzkoako hazi ekoizle, banatzaile edo babesleak lirateke. Hala ere, argitzea komeni da, badaezpada, elkarrizketatuetako bat Araban elkarrizketatu zela. Laginaren parte izatearen arrazoa, Euskal Herriko Hazien Sareko kide den heinean, eta izenak aditzera ematen badu ere, sareak Gipuzkoan ere jarduten duela da; hots, lurralde horretako errealitatea ere ezagutzen duela, hain zuzen. Honakoa kontuan edukiz beraz, lan honetan erabiliko den lagina, aipatu berri den unibertso edo populazio horretako bost pertsona dira, eta hauek aukeratzeko garaian kontuan hartu diren aldagaiak jarraian zerrendatzen direnak lirateke:

- Nekazariak izatea (Bai/Ez)
- Gaiarekiko ezagutza mota (Aditua/Aritua)
- Adina (Diskretua)
- Generoa (Gizona/Emakumea)

Bestalde, kale-lanari dagokionez, honakoaren inguruan badaude egon argitzeko hainbat afera. Lehen batean, komenigarria da esatea, kontaktazioa posta elektronikoz bidez egin dela, bost kasutatik hirutan, eta beste biak aurreko kontaktu horietako biren bidez kontaktu direla. Ildo beretik, jendearen prestutasuna oso lagungarria izan da kontaktazioa ondo ateratzeko, egia esan, denbora tarteak ez baita handiegia izan.

Bigarrenik, elkarrizketak, pertsona horien jardunbide espazioetan egin dira orokorrean, kasu batean izan ezik; zeina, online bidez egin behar izan zen elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatuaren arteko distantziak medio. Bestalde, elkarrizketa egitearen “truke”, lan honen jarraipena egitea eskaini zaie, baita ekarpenak egiteko aukera eta akatsak adierazteko, edo aldatu beharreko gauzen inguruan haien iritzia emateko askatasuna ere. Azkenik, datuak gorde eta erregistratzeko, nire mugikor pertsonala erabili dut, eskura nuen materialik egokiena baitzen; eta, argitzeko besterik ez, elkarrizketaren grabazioa soilik erabili dela datuak egokiro jasotzeko eta modu horretan analisi egoki bat egin ahal izateko esatea.

Beraz, diseinu teknikoari amaiera emateko, jarraian laginaren inguruko taula bat atxikitzen da kontuan hartutako aldagaiak eta elkarrizketatuen profilak modu ulergarrian ikus daitezkeen:

Taula 1. Sakoneko elkarrizketen parte-hartzaileen profilak:

	Nekazaria	Ezagutza	Adina	Generoa
E1	Bai	Aditua/aritua	41	Gizona
E2	Bai	Aditua/aritua	42	Gizona
E3	Ez	Aditua/aritua	45	Gizona
E4	Bai	Aditu/aritua	46	Emakumea
E5	Bai	Aditu/aritua	38	Emakumea

Iturria: norberak egina.

6. Analisia

6.1. Botere-harremanak eta biolentziak

6.1.1. Biodibertsitatearen inguruan

Esan bezala, nekazaritza eredu industrialak ezartzen dituen biolentziak ugariak dira; baina, horien artean, agian, ezagunena biodibertsitatearen galera litzateke eta honakoan behintzat elkarrizketatu guztiak bat etorri dira. Izan ere, testuinguruaren atalean aurreratu den bezala, gaur egungo egoera geroz eta larriagoa da, baita geroz eta kontraesankorragoa ere.

Hazien ekoizpen ereduaren industrializazio prozesu bizkorra, hein batean, haziaren nolakotasunari zor izan zaio. Hau da, haziak, ekoizpen prozesuaren hasieraren eta amaieraren parte dira, ereite momenturako ezinbesteko elementu diren momentutik eta amaierako produktu ere izan daitezkeen momenturaino, alegia. Hori dela eta, ez da harrizkeoa, nekazaritza sektoreko enpresa handiek haiengan arreta ipini izana.

Ildo beretik, elkarrizketatuen arabera, hazien ekoizpen eredu agroindustrialaren aktore nagusien artean hazi enpresa handiak, *hazi etxeak*, multinazionalak, korporazioak, gobernuak eta nazioarteko erakundeak aurkitzen dira. Baina, hazien ekoizpen eredu industrialaren parte diren honako aktoreak, ez omen datoz horren aspalditik; baizik eta, duela gutxitik hasi eta, indartsu hasi baldin baziren ere, pixkanakako prozesu baten bidez gailentzen joan direla, hain zuzen ere:

“Las casas de semillas eran empresas familiares eee... surgen... la primera es de finales del siglo XVIII ¿no? Bill Mourant en Francia, pero muchas son del principio del XIX y, y no empiezan a... el canibalismo corporativo, esto de fusiones y que se comen unos a otros es muy, muy reciente. Hasta hace pocas décadas seguían siendo empresas familiares que abastecían mercados relativamente regionales” (E3).

Halaber, aurreko aipuan elkarrizketatuak bere hitzekin adierazten duenez, gaur egun hazien inguruan diharduten aktore horiek, ez dihardute prozesu baketsu edo lasai batean, baizik eta prozesu bortitzak direla, batak bestea jateak darion biolentziak jositakoak, alegia.

Bestalde, behin aktore horien eta harremantzeko era horien gailentzea gertatzerakoan, biodibertsitatearen galeran eragin nabarmena eduki duten prozesuak

abian jarri ziren. Zehazki, elkarrizketatu guztiak bat etorri dira prozesu horiek, nagusiki, “hazien pribatizazioa eta estandarizazioa edo uniformitatea” direnean.

“Y, a veces decimos esto, ¿no? Que la, lo de la privatización de semillas por un lado tiene que ver con todas las leyes de propiedad intelectual y así... pero también tiene mucho que ver con los cambios en el modelo productivo; es decir, e... hay una serie de actividades que e... en la agricultura campesina tradicional se hacían en la propia finca y que se van externalizando y que van asumiendo ciertos productores que se especializan. Los productores de semillas, los viveristas... eee... luego los hortelanos en el caso de hortalizas e... pero en todos los sectores es así” (E3).

“Beste aldea da ba estandarizazioa, ez? Ba, gaur egun, bai hemen, bai Alicanten, bai Marruecosen, bai Txinan e... landatzen degu ba hazi berdinak. Osea, produkto berdinak...” (E2).

Hau da, hazien pribatizazio prozesuak, gobernuek eta gobernuz kanpoko erakundeek ezarritako legeekin harremana baldin badauka ere, sektorearen espezializazioarekin ere baduela eduki harremanik; eta, horrekin batera, baita geroz eta espezializatuagoa dagoen sektore horrek ekoizten dituen hazi motekin eta hauek bete beharreko ezaugarriekin ere. Zehazki, estandarizazioak halakoari egiten baitio erreferentzia, hazi eskaintza uniforme bat egoteari, ezaugarri jakin batzuk izango dituzten haziak ekoizteari, edo elkarrizketatuetako baten hitzetan:

“Gero, ze haziak e... ekoizten ditugu. Zeren, gaur egun industriak batez ere ekoizten ditu hibridoak edo barietate oso komertzializatutak, oso estandarizatutak e... komertziorako” (E2).

Baina, haziak bete behar dituzten ezaugarriei hurrengo atalean helduko diogunez, momentuz ez zaio garrantzia gehiago emango. Izan ere, bioaniztasunaren galeran parte hartzen duten prozesuen artean ekoizpen ereduak duten garrantzia izan baita, nagusiki, elkarrizketatuek mahaigaineratu dutena. Haatik, hortaz gain, elkarrizketatuetako batek beste prozesu bat ere identifikatu du espezializazio prozesuarekin harremanetan egon daitekeena; zehazki:

“Por las lógicas del modelo productivo, pero también de las lógicas de... de los modos de vida, de... de que ya no viven... no sé, yo que sé, ¿sabes? ya no son familias de... de ocho adultos en cada casa y así... entonces bueno es todo que va sumando” (E3).

Honek guztiak, ekoizpen ereduetan gertatutako aldaketek, zein bizimodu ereduetan gertatutakoek, hazien ekoizpen eredu nagusi gisa bioaniztasunaren galerarekin zerikusi handia duen eredua agroindustrialaren gailentzean parte hartu du.

Zentzu horretan, gizaki oro, biodibertsitatearen galeran dugun arduraz jabetu behar baldin bagara ere, agian, azpimarratu beharko litzateke gizaki guztiok ez dugula ardura maila berdintsua. Hau da, *antropozenoa*-z hitz egiten denean bezala, badirudi egoera honen aurrean *espezia* dela arduradun nagusia eta, bestelako dominazio ardatzek zer esanik ere ez dutela arduraren banaketa horren inguruan. Ildo beretik, halako kontzeptua erabili beharrean *kapitalozenoa*-z mintzatzea aproposagoa dela defendatzen da; agian, modu horretan, sistema kapitalistak ezartzen dituen desparekotasunak ageriagoan geratzen baitira.

Halaber, arduraren banaketaren inguruan, halako kontzeptuak Ipar Globalak beregain aitortu beharko lukeen erantzukizuna mahaigaineratzen lagundu dezake; kontuan edukiz gero, herrialde horien garapena beste batzuen kontura gauzatu zela eta garapenaren bultzada horrek eredu agroindustrialaren hedapenean eduki zuen eragina.

6.1.2. Hazi barietateen inguruan

Bestalde, hazi barietate ezberdinak daudela jakina baldin bada ere, honakoen inguruan antolatzen diren harremanek analisirako hainbat gako eskaini diezazkiguketela uste da. Hala eta guztiz ere, jarraian egingo den interpretazioarekin ez nuke aditzera eman nahi “gaiztoa” eta “ona” kategorietan sailkatu daitezkeen hazi motak daudenik, ezta gutxiagorik ere; hortaz, bakoitzaren inguruan zenbait ohar ere gehituko ditut aipatutakoa saihesteko xedez.

Beraz, lehen batean, hazi barietate hibridoek inguruan hitz egin nahiko nuke, hauek nekazaritzaren munduan duten garrantzia dela eta; izan ere, oso hedatuta dauden haziak baitira. Hasteko, esan beharra dago, hazi hibrido bat zera dela: bi hazi barietate ezberdinen gurutzaketaren emaitza; edo, elkarrizketatuetako baten hitzetan:

“[...] dos variedades muy homogéneas genéticamente, los parentales, los cruzan y sale la primera generación que es la F1, ¿no? Que es, normalmente, mucho más productivo, más vigoroso y tal y luego también hay híbridos que están e... hechos también para que sean una planta resistente a cierta enfermedad” (E3).

Hots, hazi hibridoek, nekazaritzaren munduan duten garrantziaren zergatien inguruan, bereziki, aipatutako bi ezaugarri horiek hartzen dira kontuan; alde batetik, orokorrean produktibitate maila altua eskaintzen dutela eta, bestetik, erresistentziarekin eduki dezaketen lotura.

Ildo beretik, aurreko atalean aipatu den bezala, hazien kasurako honako ezaugarriak dira orokortzen direnak eta zilegitzen direnak egokiak edo desiragarriak bezala; izan ere, badirudi, hazien azken helburua komertzioa besterik ez dela edo izan behar duela, merkatuan lehiatzeko gaitasuna edukitzea, hain zuzen ere. Hau da, badirudi, hazi “ideala” sortzerako orduan, hazi hibrido hauek esanahi edo adiera jakin bat hartzen dutela, merkantzia gisa ulertzea igarotzen direla, alegia.

Haatik, hazi barietate hibridoan inguruan badago azpimarratzeko besterik ere. Zeren eta, hibridoek, uzta kopurutsuagoak ematen baldin badituzte ere, halakorik soilik lortzen dute hazi barietate hibridoan lehenengo belaunaldiek; hau da, *F1* belaunaldi bezala ezagutzen dena dela produktibitate maila horretara iristeko gai den bakarra, gainontzeko belaunaldiek ezaugarri horiek galdu egiten baitituzte, edo:

“Si tu cojes la semilla de un híbrido que pasa? Que la F2, la segunda generación, va a tender de forma aleatoria e, e, e, impredecible hacia un parental u el otro o... no es estable. Entonces, si tu quieres una planta con esas características, tienes que comprar todos los años para asegurar eso, cuando eres un agricultor que plantas 10 hectareas de tomate o lo que sea y tal ¿no?” (E3).

“Entonces, se genera esta dependencia económica que de facto tu podrías guardar la semilla y de ahí saldría e... nuevas plantas. Pero, seguramente no tan buenas, digamos, como la que has comprado” (E3).

Zentzu horretan, hazi barietate hibridoan erabilerak, baditu eduki bestelako ondorioak ere. Garrantzitsuenetarikoa, nekazariak haien autonomiarengan nabaritzen duten murrizketa dela esan genezake. Pare bat lerro goraxeago txertatutako elkarriketatuen aipuak aditzera ematen duen lez, ohikoa baita hazi barietate hibridoetara jotzea ekoizpen helmuga jakin batera iritsi behar duen nekazaria baldin bazara, hauen emaitza produktiboak direla eta; baina, horren alde iluna litzateke nekazariaren eta merkatuaren artean sortzen den menpekotasun harremana. Noski, argi dago halako harremanaren norabidea nondik norakoa den; hazia behar duen nekazaria delarik merkatuarekiko menpekota dena eta ez alderantziz, alegia.

Bestalde, hazi hibridoek nekazarien autonomiaren galeran duten pisua azaleratzen saiatu berri izan banaiz ere, hauen inguruan hitz egiterakoan, elkarriketatutako guztiek aitortu dute honakoek, hein batean behintzat, errealitatean duten baliagarritasuna.

“Pero la realidad es que los productores, nuestros colegas, e...los utilizan” (E3).

“Entonces ahí también e... ponerse muy estupendo en que los híbridos son el enemigo y es e... digno de que te retiren el carné agroecológico usar híbridos, pues... pues sería poco realista porque la realidad que vemos en las huertas profesionales de, de nuestros colegas es, es esta” (E3).

“Hala ere, gaur egun ere, ekologikoan eta agroekologian, agroekologikoko ekoizleen arten ba... híbrido dextente dare zeren mintegiak ba erabiltzen dute híbridoak zeren hobeto funtzionatzen dute según zertako” (E2).

“Hala ere, eske borroka oso handia da eta ulergarria da ba... ekoizle txiki batek hibridok erabiltzea” (E2).

Hau da, nahiz eta, mahaigaineratu den bezala, hazi hibridoak sortu izanaren arrazoiak gaitzetsi, errealitatera jaitsiz gero, praktikan erabili egiten diren haziak direla aitortzen dutela. Izan ere, nekazari gehienek, baita ekoizpen agroekologikoan jarduten dutenek ere, hazi hibridoak ere erabiltzen dituztelako. Aitzitik, elkarrizketatuetako batek egindako ekarpena jaso nahiko nuke, kontu honi heltzerakoan aintzat hartzekoa dela uste baitut; izan ere, hark esaten duen bezala, bestelako hazi barietate batzuen hobekuntzan jarriko balitzateke arreta, agian, hazi hibridoak horrenbeste erabiltzeari utziko baikenioke:

“... también es cierto que, caro, los recursos que tienen la, la, la investigación en mejora genética agroecológica son cero ¿no? Entonces si hubiera muchos más recursos del Estado o de las empresas investigando en mejorar variedades no híbridas, pues igual otro gallo cantaría” (E3).

Bestalde, hazi barietate transgenikoetara salto eginez, honakoen kasuan ere nekazarien autonomiaren galera sarri errepikatu izan den gertaera dugu. Baina, jarraian datorren elkarrizketatuaren aipuak aditzera ematen duenez, autonomia horren galerak ez du hibridoek kasuan bezala urtero erosteko beharrarekin horrenbesteko zerikusirik; baizik eta, beste arrazoi batzuk direla transgenikoen kasuan galera horren jatorria:

“Hortarako (transgenikoak ekoizteko) behar den teknologia oso potentea da, oso potentea. Hori ezin da baserriarren, baserrietan edo... baserriarrek garatu. Oso... oso teknologia konplexuak dira. Ta... garestiak orokorra, orokorrean, bai” (E1).

Hau da, transgenikoen kasuan, bereziki teknologiak hartzen du garrantzia; eta hortaz, momentu batez, teknologia horren inguruan jardun nahiko nuke. Hazi transgenikoen eta teknologiaren inguruan beraz, hauek berezko duten pakete teknologikoa aurkitzen da. Hots, beste ezaugarri batzuetaz gain, hazi transgenikoak besteengandik ezberdintzen dituen transgenikoak ekoiztu ahal izateko ezinbestekoa den teknologia mordoa dela. Ondorioz, elkarrizketatuek, transgenikoen garapenari hainbat afera atxikitu dizkiete:

“Batez ere, eta niregatik, eta horregatik borrokatzen degu transgenikoen kontra da... e... inposatzen digun teknologia bat e... multinazionalen eskuz bakarrik dago eta guk justu nahi degu multinazionalen monopolio horri borroka egin. Eta gure autonomia... ba oztopo haundi bat da” (E2).

Elkarrizketatuak teknologia inposatu egiten dela dioenean, hazi transgenikoen ekoizpenerako teknologia soilik multinazional handien esku dagoenari egiten dio erreferentzia; hau da, hazi ekoizle txikientzako hazi transgenikoak ekoizteak zailtasunak suposatzen dituela, teknologia horiek diren ekoizpen bitartekoak eskuratzeko zailtasunak dituzten neurrian. Horren haritik agertzen da oztopoaren ideia autonomia lortzeko bidean.

Hibridoen kasuan bezala, biolentzia berdina litzateke, nekazarien autonomiaren galera hain justu; baina, hibridoen kasuan urtero hazi berria erosi behar izateak garrantzia gehiago hartzen duen bitartean, transgenikoen kasuan hauek ekoizteko beharrezkoa den teknologiak ordezkatzeko du garrantzia hori. Halaber, agian, interesgarria da elkarrizketatuetako batek transgenikoen inguruan hitz egiterakoan pribatizazio prozesuei erreferentzia egiteko erabiltzen dituen hitzei jaramon egitea:

“Baña, transgenikoen punturik ahulena da (isilunea) ikuspuntu sozial batetik. Hori da, nire ustez benetan e... eztabaida ezina dana [...] Hori ba, ba, pribatizatzen dituztelako baliabide naturalak, bizitza pribatizatzea edo bizitza patentatzea, erregistratzea. Hori da benetan e... onartezina dana, ez?” (E1).

Kasu honetan elkarrizketatua, zehazki, transgenikoetaz ari baldin bazen ere, hibridoen kasurako ere balio dezaketen esamoldeak direla uste da. Hots, hazien inguruan martxan jartzen diren pribatizazio prozesu horiek, baliabide natural gisa ulertu daitezkeen haziak pribatizatzeaz ez ezik, bizirik dauden hazi bezala ulertu daitezkeen haziak pribatizatzen dituztela; eta, zentzu horretan dio elkarrizketatuak, bizitza dela pribatizatzen ari dena, bizitza dela jokoan dagoena. Beste modu batera esanda, hazia pribatizatzen denean, honakoa baliabide huts bezala ulertzen dela eta ez dela kontuan hartzen honek eduki ditzakeen bestelako esanahiak; beste behin ere, hazia objektu soil bat bezala ulertzen delarik.

Hortaz gain, eta transgenikoei dagokienarekin amaitze aldera, honakoen inguruan segurtasunaren ideia baino, arriskuaren ideia errepikatu da. Halakorik, elkarrizketatu honek esandakoan nabarmen agertzen da:

“Horren inguruan dagoen ezjakintasuna oso, oso handia dala. Bai. Genetika. Genetikan e... dauden ezagupenak, ez dakit ezagutzen, dakizun ala ez, baña... ADN-aren e... %80-a baño gehiago, ez dakigu zein den bere, bere funtzioa. ADN zaborra edo, uste dut, ADN basura, deitzen diote. Ta ordun da, pff... ez baldin badugu ADN-aren funtzioak eta menperatzen zelan hainbeste jolastu, ez? Adibidez” (E1).

Baina, beste elkarrizketatu batek arriskuaren inguruan egiten duen irakurketan, eta ez soilik transgenikoei dagokienean, baizik eta hibridoek ere egiten diela erreferentzia, arriskuaren beste adiera bat mahaigaineratzen da:

“Bakarrik geratzen da transgenikon ezagutza edo hibridon ezagutza ba... ostia, ze mundu arriskutsua, ez? Osea, ya no te digo si mas bonito o mas feo, que me... lo tengo bastante claro, pero... pero de entrada me parece bastante peligroso, ¿no?” (E2).

Analisiaren puntu honetan, lehen aldiz agertzen zaigu ezagutzaren afera, hazien munduari bueltaka dabilen edo, hobeto esanda, dabilzan ezagutza ezberdinen afera, alegia. Izan ere, jarraian ikusiko dugun bezala, hazi barietate ezberdinen inguruan ezagutza ezberdinak mugitzen baitira. Aurreko aipuan, elkarrizketatuak arriskuaren ideia ildo horretan planteatu zuelarik; hau da, ez dela soilik politikoki ados ez egotea transgenikoekin, hauen inguruko jakintza delarik ere arriskuaren igorlea. Elkarrizketatu berak hausnarketa txiki bat ere egin zuen gaiaren inguruan:

“Sobretudo si perdemos la capacidad de... de producir nuestra propia comida, ¿no? Que es al final es, es eso, ¿no? Es eso. Entonces, comer tenemos que comer, somos animales. Entonces, si perdemos las herramientas para alimentarnos a nosotros mismos... yo creo que es difícil plantearnos incluso otros modelos de sociedad, ¿no? Osea, porque, porque... estamos perdiendo lo mas basico.

Entonces, si, podemos hablar de... del aire, en cuanto a... en cuanto a como organizar la sociedad, pero si no somos capaces de darnos de comer a nosot... igual que si no somos capaces de construirnos una casa, ¿no? O de... autogestionarnos nuestra salud, o de cuidarnos entre nosotros o de criar a nuestros hijos, osea... quiero decir, son necesidades muy basicas de las personas como para que queden solo en manos de las multinacionales ¿no?” (E2).

Zentzu horretan, elkarrizketatu honek eskainitako hausnarketan zehar, badirudi, haziek bestelako esanahirik hartzen dutela, pertsonon behar-izanei erantzuteko tresna gisa ulertzetik hurbilago kokatzen delarik. Horretara mugatu beharrean ordea, autogestioaren edo autonomiaren ideia bestelako esparru batzuetaz mintzatzeko ere baliatzen du; esate baterako, eraikuntzaz, osasunaz edo zaintzaz mintzo denean.

Ildo beretik, hazi barietate transgeniko eta hibridoek atxikitzen zaien ezagutza, eredu tekno-zientifikoaren oinarria den horixe bera dela defendatzen da. Hots, jakintza zientifikoaren eta teknikaren bidez natura menperatu daitekeela, eta menperatu behar dela, defendatzen duen horixe bera dela.

Halaber, jakintza mota honek, badauka eduki beste oinarririk; zehazki, aditu/ez-aditu egitura bitarra da beste zutabe garrantzitsuetako bat. Ez-aditua, ez-jakin moduan irudikatzen da eta haren ezagutza zalantzagarriztat jotzen delako tradizionala eta irrazionala, primitiboa, mitikoa eta atzeratua delako. Izan ere, jakintza zientifikoa ez baitago praktikotasunari horren lotuta hazien ekoizpenaren kasuan:

“[...] ez da ezagutza praktiko bat, ez da ezagutza nekazariok praktikan jarri ahal degun, ordun niri ez zait interesatzen” (E2).

Eta, gainera, jakintza zientifikoa edo ezagutza sistema zientifikoa oinarri duten haziak, ez dira ingurunera moldatzen; baizik eta, ingurunea dela hazira moldatu beharrekoa.

6.2. Erresistentziak edota alternatibak

Hala ere, hazien ekoizpen ereduen artean nagusi den nekazaritza eredu industrialaren aurrean erresistentzia ugari egiten direla pentsa genezake, baita eredu horren ordezeko alternatibarik abian dela ere. Hortaz, atal honetan, horietako batzuetan eta haien arten partekatzen dituzten ezaugarrietan ipini nahiko nuke arreta.

Ildo beretik, aurreko atalean, bioaniztasunaren eta autonomiaren galera, hein handi batean behintzat, ekoizpen eredu agroindustrialarekin harremanetan dagoela mahaigaineratu da. Eta, elkarrizketatuek plazaratu dutenez, bai egoera horiei aurre egiteko, bai bestelako eredurik sortzeko ahaleginetan kokatzen dute haien burua eta baita haien proiektuak ere.

“Ba mundu mailan zegoen arazoari aurre egiteko, bioaniztasunaren galera ikusita [...] sortu zen. Ikusita zein zen gure baserritarren egoera eta gure baserrietan e... bioaniztasuna, ez? Ze nolako, e, erritmo edo abiadurarekin ari zan galtzen, ba hori izan zen apur bet, uste dut” (E1).

“Beti faltan bota izan genun, ez? Holako proiektu bat, nun, alternatiba... Euskal Herrian ez zegoen alternatibaik hazien merkatu, dagon hazien merkatuari. Ideia da, ba alternatiba hori sortuz... ba... haziak eskaini merkatuari baserritarren sare batetik” (E2).

Beraz, esan bezala, elkarrizketatu guztiek adierazi dute beste ekoizpen eredu batzuen beharra; eta, zentzu horretan, elkarrizketatuetako zenbaitek garai batean merkatutik hazi ekologikoa lortzeko zegoen ezintasunaz hitz egin dute, baita bestelako ekoizpen ereduetan jarduteak suposatzen dituen zailtasunetaz ere, elkarrizketatuetako batek ondo laburbiltzen duelarik honakoa:

“Bueno alde batetik e... eztakit interesgarria, bueno bai, badakit interesgarria dan, baña gure egiten degu horrela ez, ez bakarrik interesgarria delako, baizik gure era bakarra dala, osea, gure ezin deula hemen... bueno, beitu ze pendiente gare (euriangatik) eta gure hemen terrenoa ezin deula mekanizatu, hemen esplotazioak oso txikiak dira baña oso intensiboak eta... gure ekoizpen eredu bakarra hori da, artisau eredu, bai haziak egiteko edo letxuga egiteko edo tomate egiteko, osea, ez dakagula besterik ordun gure egokitzen ari gea ere ba... haziak egin ahal, ahal degun bezala.

Eta nola egin ahal degu? Ba bere garaian egiten zan, osea, oain dela 50 urte egiten zan bezala edo oso antzekoa egiten degu, zeren ez daola makinaria gure eskalari egokituta, ez dagola, merkatuan ez dagola, gure asmatu behar degu e... makinaria eta gure todos los medios de produccion asmatzen degu zeren ez daola.

Hori ze abantailak ditu? Zeren, printzipioz dana des, desabantailak dira, zeren askoz zailago da egitea edo esfuerzo gehio behar du, edo bueno, arrisku gehio, baña abantail batzuk ditu eta abantail hoiak dira ba... ba nik saltzen ditut, saltzen ditudan haziak nik ekoiztutakoak dira, ordun zu nekazaria bezala izango balitz, ba niregana etorriko zinen bai haziak erostea, baña baitare eztakit nola esan, traspaso hori egin ahal dizut, ez? Esatea, beitu eske badakit ze hazi da hau, nola egin dan, osea badakit baina hoiak nola hazten ari dira, nola egingo duten, nola emango duten, ze arazo dituzten, nola egokitzen dira, adibidez e... hain uda freskoa egiten ari dan, ba nik badakit nola erantzuten dute baina hoiak. Eta hori beste hazi etxe bat, eso es imposible, imposible!” (E2).

Elkarrizketatu honen testigantzak aditzera ematen duenez, askotan, bestelako hazien ekoizpen ereduak pauso bat haratago joatea eskatzen dute, egin beharreko esfortzua areagotuz; baina, hala ere, ez dira horretan geratzen eta beste era batean ekoizteak eskaintzen dituen aukerak ere eduki dituzte hizpide. Aukera edo “abantail” horietaz hitz egiterakoan, orduantxe, bi afera nagusi azalarazi dira: alde batetik, nekazariak berreskuratzen duten autonomia; eta, bestetik, hazien inguruko ezagutza.

Izan ere, nekazarien autonomiari dagokionez, erreferentzia egiten zaio, batik bat, merkatuarekiko menpekotasun harreman hori murrizteari. Hots, nekazariak zein hazi erabiliko dituzten erabaki ahal izateari eta merkatuan dagoen eskaintza onartzera behartuta ez egoteari egiten zaio erreferentzia. Eta, bestalde, ezagutzari dagokionean, aurreko atalean identifikatu den ezagutza tekno-zientifikoari kontrajartzen zaio esanenez ezagutza bat da elkarrizketatuek plazaratu dutena, hainbat ezaugarri atxikitu dizkiotelarik honakoari, edo haien hitzetan:

“Beste hazien ezagutza ba mendeetan zehar sortu da eta... eta... eta oso baliogarri izan da, ze gu horregatik hemen gaude, osea, ba... ezagutza horren esker hemen gaudela ta ordun ba demostratuta dago praktikoa dala eta baliogarria da” (E2).

“Alde horretatik ba, badu beste zera bat, ez? Ba, irikia dan informazio bat da eta konpartitzen dan informazio bat da” (E4).

Beraz, orokorrean, bestelako ekoizpen eredu hauetan mugitzen den ezagutzari, publikotasuna, irekia, praktikoa eta baliogarria izatea bezalako ezaugarriak atxikitzen zaizkio; eta, aldi berean, ezagutza hau bestelako hazi batzuekin harreman du. Hazi horiek, edo hazi barietate horiek, *lokalak* bezala izendatu direnak dira, eta elkarrizketatu batek modu argian azaltzen du aipatu berri den harreman hori:

“Sí, es evidente, las variedades locales son, osea, las semillas locales son receptáculos de conocimiento, osea, son en si mismas; no solo por la información genética, sino porque ahí está encerrada la cultura gastronómica, la cultura agraria de una zona etc. Entonces, son, ellas mismas son portadoras de, de, de historia de cultura, de relaciones sociales etc. ¿no?” (E3).

Hots, hazi lokal bezala ezagunak diren hauek, ez direla objektu hutsak bere horretan. Elkarrizketatuek eman dieten esanahiean, ezagutza, kultura, harremanak eta abar aipatu baitira. Beste modu batera esanda, elkarrizketatuek adierazitako diskurtsoetan haziak ez direla, soilik, objektu gisa ulertzen; baizik eta, harreman sare baten parte diren entitate bezala ulertu ditzaketela.

“Las variedades locales, por el contrario decimos, lo que hacen es que se adaptan, osea que es que la semilla se adapta a to... osea, tu no adaptas el entorno a las semillas, sino que la semilla se adapta al entorno digamos ¿no?” (E3).

Zentzu horretan, aukera edo potentzialtasun horiek dira hazi hauei atxikitu zaizkienak. Zehazki, hazi hauek, hibridoek eta transgenikoek ez bezala, ez dutela ezinbestekotzat horrenbesteko teknologiarik, ez intsumorik; eta, beraz, nekazariak erabili edota ekoiztu ditzaketen haziak direla, horien inguruko ezagutza irekia den eta elkarbanatzen den heinean, haien autonomia bermatuz. Hala ere, elkarrizketatuetako batek, hainbat kontu azpimarratu ditu hazi hauen inguruan, agian, kontu honi heltzerakoan gogoan edukitzea garrantzitsua izan daitezkeenak:

“Y variedades locales apela a, vale, al hecho de que son de cierta zona ¿no? De la localidad, pero claro, los cultivos si tienen algo es que se han movido por el mundo ¿no? Y que la mayoría, bueno, prácticamente todo lo que comemos no se domestica aquí, vino en algún momento del Neolítico, luego desde otros lugares del mundo o desde América posteriormente ¿no?”

Entonces, variedad local, en si es una variedad que las gentes campesinas de una comarca o de un valle e... con el paso de los años, de las generaciones surge esa variedad en ese valle. Pero, ¿desde cuando? ¿Cuántos años tienen que pasar para que se considere una variedad que es local? Y eso, es

totalmente arbitrario y cada red de semillas tiene su fecha, su limite propio. [...] porque realmente es una cuestion mas que tiene que ver con... con la, no se, con la politica o con el discurso que no con, no se, no es para nada una cuestion genetica o biologica” (E3).

Hori dela eta, halakorik kontuan edukitzea ineteresgarritzat jotzen da, agian, bestelako alternatiba hauetan ere egon badauden arriskuak identifikatze aldera. Hau da, hazi barietate lokalak interesgarriak baldin badira ere, hauen inguruan sortu daitezkeen begirada murriztaileak saihesten saiatzeko, lokala dena eta ez dena auzitan jartzea beharrezkoa izan daitekeela, alegia.

Azkenik, hazi hauen inguruan mugitzen den ezagutzaz ari garenez, emakumeek honakoaren transmisioan eduki duten garrantzia agertu da zenbait elkarrizketatuen kontakizunetan; halaber, zaintzak hazien munduaren eta nekazaritzaren inguruan orokorrean duen garrantzia ere mahaigaineratu dutelarik.

“Hemen, baserrietan beti hazia gorde izan da. Zenbait gauzetan, beste batzutan igual ez e. Baña beti egon da ezagutza hori, batez ere emakumeen eskutik etorri da. Etxeetan emakumeek gorde izan dute haziak gordetzea, hurrengo urtera... osea, konsziente izan dira hazia zela e... autonomiarako herramienta handi-handia. [...]

Emakumeak beti egon dira etxe bueltan eta baratza beraien ardura izan da. Zaintza-lanak, familiarenak eta etxe inguruarenak bereak izan dira, eta... eman, aitortu izan zaizkio holako lan txikiak entre comillas, ez? Ba... oiloak zaintzearenak edo baratza zaintzearenak

Gero egia da, orain ez bakarrik zaharrak eta emakumeek e, nik uste dut hori igual lehenago zala. Orain, baserritarrak... adibidez baserritar agroekologikoeak hartu dute relevo hori pixkatxo bat. Eta badago nor informatu den zelan gordetzen den hazi bat, zer ein bihar dan eta ya eiten duna” (E4).

Hau da, historikoki emakumeen biodibertsitatea bermatzean egin duten lana hauteman duela elkarrizketatuak, azalduz, lanaren banaketa sexualak zerikusi nabaria eduki zuela halako egoerarengan; baina, iraganerako egoera hori erromantizatze arrisku horretan erori gabe, argi identifikatzen du gertatzen ari den aldaketa. Hots, garai batean gehienbat kontserbazio edo mantentze lan horiek emakumeek eta zaharrek egiten baldin bazituzten ere, gaur egun, bestelako aktoreek ere haien gain hartu dituztela baitio; esate baterako, agroekologiaren adarretik jotzen duten baserritarren lana aipatzen duelarik eta, bestelako elkarrizketatuek mahaigaineratu bezala, hazi-sareek ere lan handia egiten dutelarik bide berdintsuan.

Eta, analisiarekin amaitze aldera, elkarrizketatuak batek modu argian adierazi duen beste afera bati heldu nahiko nioke. Zehazki, zaintzarena litzateke halako afera. Jarraian datorren aipuak bestelako alternatiba hauek naturaren eta gizartearen arteko harremana ulertzeko duten modua egokiro eta era adierazgarrian laburbiltzen duelakoan bainago, hain zuzen ere:

“Lehenengo, igual, hazitikan baño lurretikan hasiko nintzake. Eta da lurran egiten dan zaintza hori, ez? Eta ez lurran erabilera bat, ez? Azkenian, lurra, bueno... justo eskoletatikan etortzen dian bixitetan e... (barrea) Ba nik aipatze neban lurra bizirik daola ta beaiek ikasten dute lurra eztagola bizirik (barreak). Baña, bueno, lurrian badago bizitza esan nahi neban, ez? Eta hori bai... ba urtiekin gero ta gehiago jun gea lantzen e... [...] lurran zaintza eta lurreko bizitza hori nola mantendu bizi eta ugari lantzen ibili gea. Lurran bizitza kontuan hartzen degula eta ez... lurra ezta, azkenian, eduki bat landarak bizirik mantentzeko botatzen dizkioten produktuekin, handia egin eta listo” (E5).

Hau da, nekazaritza ekoizpen industrialak hizpide izan denean, eta zehazki hazien ekoizpen eredu industrialak, honakoa Natura/Gizartea dikotomiarekin harreman duen da zuzen zuzenean. Ikuspegi horren inguruko azalpenik berriro ez egitearren, bestelako ikuspegi batzuetatik harreman hori ulertzerakoan guztiz abiapuntu ezberdinetik egiten dela mahaigaineratu nahiko nuke. Izan ere, kasu honetan elkarrizketatua lurraz ari baldin bazen ere, haren kontakizunean zehar darabiltzan esamoldeak direla eta, argi ikusten da natura ez duela eduki bat bailitza bezala ulertzen. Elkarrizketatuak dio, lurra kontuan hartzen dutela, kontziente direlako bizirik dagoela, bizitza dagoela lurrean bertan hain justu. Esan bezala, zehazki haziaz ez baldin badabil ere, haziaren kasura estrapolatu genitzaken aitortzak direlakoan nago.

Ildo beretik, zaintzak, gizakion arteko harremanetatik kanpo hartzen duen garrantzia azpimarratzen duela elkarrizketatu honek, edo behintzat, hartu beharko lukeen garrantziaz hitz egiten dabilela. Zentzu horretan, Haraway-k proposatzen duen zaintza-modu-gizatiarraz-haratago dagoenaren garrantzia litzateke honakoa; izan ere, lurra, edo haziak, ez baitaude hor, gizakion esperoan ea noiz ustiatuko ote ditugun, baizik eta haiekin harremanean egonen garela, haziak gurekin lez. Esan nahi dudana da, haziak objektu hutsalak, ustiatu daitezkeenak bezala ulertzeak dakartzan ondorioak ikusita, agian, hasiera batean arraroa izan daitezkeen modu horretan ulertzea interesgarriagoa izan daitekeela. Onartuz guztiaren beharra dugula bizi ahal izateko edo biziraun ahal izateko, bai gizakiok gure arteko beharra eta baita ez-gizakien beharra ere, hazien kasuan bezala. Finean, ez-gizakie-kin ere *bizitzen* ikasi behar dugula edo berrikasi beharko genukeela; eta, horretarako, arduratu beharrean gaudela edo inplikatu beharrean gaudela, hain zuzen ere.

7. Ondorioak

Lan honen azkeneko atal honetan ez dator gaizki gogoraraztea zer eta zergatik izan den aztertzen saiatutakoa. Kasurako, haziak izan dira aztergai, haien esanahi orokorrean. Zehazki, hazien ekoizpen ereduaren inguruan sortzen diren biolentziak eta botere harremanak, zein erresistentzia eta alternatibak aztertzea zen lan honen helburu orokorra. Beste bi helburu zehatz ere planteatu ziren hasiera batean, lehenengoa gizartearen eta naturaren arteko harremana ulertzeko eretan gertatzen diren biolentziak, zein botere harremanak identifikatzera bideratutakoa; eta, bestea, hazien ekoizpen eredu nagusiaren aurrean sortzen diren erresistentzia edota alternatibetan sakontzeari bideratutakoa.

Horretarako, lehen batean, hazien ekoizpen agroindustrialak, naturaren eta gizartearen arteko harremana ulertzeko modu konkretu batean oinarritzen dela planteatu da. Hau da, hazien ekoizpen eredu nagusiak, zirikusia duela Natura/Gizarte dikotomiarekin edo dualismo kartesiar bezala izendatutakoarekin; zeinak, natura aztertu beharreko objektu bat bailitzan ulertzen duen, eta arrazionaltasun ekonomikoarekin harremanetan, merkantzia baten esanahia egozten dion. Halaber, prozesu horiek guztiak, modernitatean gailendu zen jakintza tekno-zientifikoaz babestuta daudela planteatu da.

Jarraian, behin halako ulerkerak ekoizpen eredu jakin batekin duen harremana mahaigaineratzeko saiakera egin ostean, halakoak dakartzan biolentzia eta botere harremanei ipini nahi izan zaie arreta. Horretarako, lehen biolentzia gisa, bioaniztasunaren galera proposatu da eta honakoan pribatizazio eta estandarizazio prozesuek eduki duten garrantzia mahaigaineratu; baina, agian, biodibertsitatearen galeraren inguruan gehien landutakoa egoera honen kausak izan dira. Izan ere, lan honen atal teorikoan planteatu bezala, sarri, gaur egun bizi ditugun egoera ezberdinak eta batez ere ingurugiroari dagozkionak azaltzerako orduan, *Anthropozeno*-aren diskurtsora jotzen baitugu. Hortaz, lan honetan, *Kapitalozeno*-aren kontzeptuak irekitzen dituen ateak edo eskaintzen dituen aukerak izan dira hizpide; izan ere, giza-espeziarena baino argudio erabilgarriagoak eskaintzen dituela uste baita, bereziki, egungo egoeren jatorriak aztertzerakoan.

Bestalde, hazi hibrido eta transgenikoetaz hitz egiterakoan, haien inguruan bestelako biolentzia bat identifikatu da: nekazarien autonomiaren galera, hain justu. Hala ere, hazi hibridoen kasuan, haien ustezko produktibitate eta erresistentzia ezaugarriak orokortu

eta zilegitu izanak sortutako nekazari-merkatu botere harremana litzateke autonomia galera horren arrazoi garrantzitsu bat; eta, hazi transgenikoen kasuan berriz, haien ekoizpenerako ezinbestekoa den teknologia. Baina, hazi barietate bakoitzaren berezitasunak albo batera utziz, hazi hibrido eta transgenikoen inguruan dabilen jakintza litzateke, finean, nekazarien autonomiaren galeran bien elkargune edo antzekotasun nagusia. Izan ere, jakintza zehatz bat atxikitu baitzaie, marko teorikoan azaldutako jakintza tekno-zientifikoa, hain zuzen ere.

Azkenik, hazi ekoizpen eredu agroindustrialak sortzen dituen botere harreman eta biolentzia horien aurrean sortu diren erresistentzia eta alternatibei erreparatu nahi izan zaie. Eta, bide horretan, hauek eskaintzen dituzten aukeren artean, nekazarien autonomia eta hazien inguruan dabilen bestelako ezagutza bat izan dira azpimarratutakoak. Zentzu horretan, honako ezagutzaren izaera irekia, publikoa... nabarmendu dute eta duen erabilgarritasun edo praktikotasun maila altua; zeina, aldi berean, nekazarien autonomia bermatzearekin harreman du den. Hortaz gain, ezagutza horren eta hazi barietate *lokal* bezala izendatutakoaren arteko harremana mahaigaineratu da, hauei esanahi jakin bat ere eman zaienaz jabeturik. Zehazki, esanahi horrek, zalantzan jartzen du hazi bat baliabide edo merkantzia bat izatea, ezagutza sistema zientifikoari kontrajarriz, tradizioak, ohiturak, kulturak bermatzeko elementu izango balitz bezala hitz egin baita haren inguruan.

Analisiaren puntu horretan, ezagutzaren puntu horretan, mahaigaineratu da emakumeek gaiaren inguruan edukitako garrantzia. Hala ere, garrantzia hori aitortu baldin bada ere, gaur egun, bestelako aktoreek zeregin horretan duten pisua aldarrikatu da, baserritarren eta hazi-sareen kasuan bezala.

Halaber, zaintzaren dimentsioa ere agertu da momenturen batean, eta honakoak alternatiba guzti hauetan natura ulertzerako orduan duen garrantzia mahaigaineratzeko ahalegina egin da. Nahiz eta, zaintza hori gatazkatsua izan, nahiz eta erraza ez izan, baina bai ordea ezinbestekoa.

8. Bibliografía

- Barba, Marta. (Argitaratzeke). *Hazi, barietate eta tomateen etnografia feminista Euskal Herrian: Bertakotasuna, transespezie ahaidetasuna eta teknobiopolitika*. Doktore tesia. Donostia: EHU/UPV.
- De la Bellacasa, Maria Puig. (2017). “Pensar con cuidado”, *SCRIBD*; hemen eskuragarri: <https://www.scribd.com/document/465731096/Pensar-con-cuidado> [Kontsulta eguna: 2021/06/25].
- Douwe van der Ploeg, Jan. (1990). “Sistemas de conocimiento, metáfora y campo de interacción. El caso del cultivo de la patata en el altiplano peruano”. *Agricultura y sociedad*, 56, 143-166.
- Egea, José María eta Gonzalez, JuanMa. (2012). “Estado de los recursos fitogenéticos desde la perspectiva de las redes semillas”, *Agroecología*, 7, 47-63, hemen eskuragarri: <https://digitum.um.es/digitum/handle/10201/36452> [Kontsulta eguna: 2021/07/02].
- Escobar, Arturo. (2007). *La invención del Tercer Mundo: Construcción y deconstrucción del desarrollo*. Caracas: El perro y la rana.
- Esteva, Gustavo. (2009). “Más allá del Desarrollo: la buena vida”. *Revista América Latina en Movimiento*, 445, 1-5.
- Foucault, Michel. (2021). “El sujeto y el poder”, *Biblioteca Libre Omegalfa*, 1, 1-31, hemen eskuragarri: <file:///C:/Users/Naia/AppData/Local/Temp/el-sujeto-y-el-poder-3.pdf> [Kontsulta eguna: 2021/09/07].
- Giraldo, Omar. (2018). *Ecología política de la agricultura. Agroecología y posdesarrollo*. San Cristóbal de las Casas: El Colegio de la Frontera Sur.
- Gonzalez, Juan Manuel. (2006). “Biodiversidad agrícola y erosión genética”, *Especies invasoras en Andalucía. Talleres provinciales 2004-2006*. Consejería

de Medio Ambiente – Junta de Andalucía.

http://www.biolveg.uma.es/links/Especies_exoticas_invasoras_Andalucia.pdf

[Kontsulta eguna: 2021/07/07]

- Grupo ETC, (2017). “Demasiado grandes para alimentarnos. Versión breve del informe *Too Big To Feed: Cómo las empresas dominantes se han vuelto demasiado grandes para alimentar a la humanidad sustentablemente*”, *ETC Group*, eskuragarri hemen:
https://www.etcgroup.org/sites/www.etcgroup.org/files/files/tbtf_internet_qualit_y_spanish.pdf [Kontsulta eguna: 2021/09/01].
- Haraway, Donna. (1995). *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza*. Madril: Ediciones Cátedra.

— (2016). *Manifiesto de las especies de compañía: Perros, gentes y otredad significativa*. Córdoba: Sans Soleil Ediciones.
- Herrero, Yayo; Pascual, Marta eta Reyes, María González. (2019). *La vida en el centro. Voces y relatos ecofeministas*. Madril: Libros en Acción.
- Holt-Giménez, Eric eta Patel, Raj. (2008). *Rebeliones alimentarias. Crisis y hambre de justicia*. Bartzelona: Ediciones de Intervención Cultural/El viejo Topo.
- Juaristi, Patxi. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Zarautz: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Latour, Bruno. (2019). *Dónde aterrizar. Cómo orientarse en política*. Bartzelona: Taurus.
- Malm, Andreas eta Hornborg, Alf. (2017). *¿La geología de la especie humana? Una crítica al discurso del Antropoceno*. Buenos Aires: Centro Cultural Kirchner – Ministerio de Cultura Argentina.

- Miquel, Domenech eta Tirado, Francisco. (2005). “Asociaciones heterogéneas y actantes: El giro postsocial de la teoría del actor-red”, *Revista de Antropología Iberoamericana (AIBR)*, 1, 1-26, eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1382237> [Kontsulta eguna: 2021/06/22].
- Moore, Jason. (2020). *El capitalismo en la trama de la vida. Ecología y acumulación de capital*. Madril: Traficantes de Sueños.
- Shiva, Vandana. (2003). *Cosecha robada: el secuestro del suministro mundial de alimentos*. Barcelona: Paidós.
- Unceta, Koldo. (2009). “Desarrollo, subdesarrollo, maldesarrollo y postdesarrollo. Una mirada transdisciplinar sobre el debate y sus implicaciones”. *Carta Latinoamericana*, 7, 1-34.